“Azken arau-aldaketa: 2022/12/23”

# 12/2013 FORU ARAUA, abenduaren 5ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (BAO Abenduaren 13koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2013ko abenduaren 5eko Osoko Bilkuran foru arau hau onartu dutela: 12/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren Gaineko Zergari buruzkoa. Arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

**EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 12/2013 FORU ARAUA.**

## HITZAURREA

Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sisteman batez ere hiru tributu daude errenta lortzeak erakusten duen ahalmen ekonomikoaren gainekoak. Hiru tributuok hauek dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga; nolanahi ere, kontuan hartu behar da, orobat, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, zeinak pertsona fisikoek dohainik eskuratutako zenbait ondare-gehikuntza zergapetzen dituen.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga 1999ko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren bidez sartu zen gure tributu-sisteman, eta ordezkatu egin zuen ordura arte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zegoen ordaintzeko betebehar erreala.

Bada, onartu zenetik hona zenbait aldaketa jasan ditu foru arau horrek, eta haietako batzuek, gainera, eragin garrantzitsua izan dute haren egituran, esaterako, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateentzako tratamenduak jasandako berrantolaketak. Horren guztiorren ondorioz, beraz, beharrezko da berriro sistematizatzea zerga hori.

Bestalde, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergak oso harreman estua du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan ezarritako erregulazioarekin, eta, ikuspegi horretatik begiratuta, kontuan hartu behar da une honetan martxan daudela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren nahiz Sozietateen gaineko Zergaren foru arauak modu integralean aldatu eta eguneratzeko prozesuak, eta biek ala biek garrantzi handia izango dute, baina Sozietateen gaineko Zergarenak batez ere, haren tratamendua zabaldu behar baita Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren mendeko establezimendu iraunkorretara.

Gure zergapetze zuzena modu integralean aldatzeko prozesuoi ekiterakoan jadetsi nahi izan den helburua izan da, hain zuzen ere, 2014ko urtarrilaren 1etik aplikatu beharreko arauketa berri bat sortzea, zeinak diru-bilketa nahikoa bermatu behar duen, aurrerantzean ere orain arte emandako zerbitzu publikoen maila mantendu ahal izateko eta ekonomia-jarduera nahiz enplegua suspertu ahal izateko.

Hortaz, egokia da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren arauketa Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kasuetan martxan dauden erreformen arabera eguneratu eta egokitzea eta, hala, batera eta aldi berean ekitea zuzeneko zergapetzearen arloan dituen hiru tributu nagusien erreforma integralari.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluaren 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

## ATARIKO KAPITULUA
## IZAERA, APLIKAZIO-EREMUA ETA ORDAINARAZPENA

### 1. artikulua. Izaera, xedea eta aplikazio-eremua.

1. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga zuzeneko zerga da, eta honako hauek zergapetzen ditu:

    a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren, baina lurralde horretan establezimendu iraunkorrik gabe diharduten pertsona fisikoek eta entitateek Bizkaian lortutako errenta, foru arau honetan xedatutakoaren arabera.

    b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoek eta entitateek Bizkaian helbideratutako establezimendu iraunkorraren bitartez lortutako errenta.

2. Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie:

    a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, baldin eta, establezimendu iraunkorrik gabe, errentak lortzen badituzte Bizkaiko Lurralde Historikoan, foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

    b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea Bizkaian duen establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen badituzte. Foru arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko, ordea, honako baldintza bi hauek betetzen dituztenei:

        - Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

        - Aurreko ekitaldi horretako eragiketa-bolumenaren %75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute, edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egin badituzte.

    c) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea Araban edo Gipuzkoan duen establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen badituzte eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

        - Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

        - Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumenaren %75 edo gehiago ez badute lurralde erkidean egin.

        - Ekitaldi horretan Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Bizkaian egin badituzte, edo, eragiketok Bizkaian eta zerga-egoitza ez duten beste lurralde historikoan egin dituztela ere, eragiketa-bolumenaren proportzio handiena Bizkaian egin badute.

    d) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, helbidea lurralde erkidean duen establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen badituzte eta honako hiru baldintza hauek betetzen badituzte:

        - Aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

        - Aurreko ekitaldian eragiketa-bolumenaren %75 edo gehiago Euskadin egin badute.

        - Bizkaian beste lurralde historiko bakoitzean baino eragiketa-bolumenaren proportzio handiagoa egin badute.

Edonola ere, d) letra honetan adierazitako kasuetan, beharrezkoa izango da talde fiskalaren parte diren eta beren establezimendu iraunkorraren egoitza fiskala lurralde erakidean duten zergadunek beren eragiketa-bolumenaren %100 Euskadin eginda edukitzea foru arau honetan ezarritakoa aplikatu ahal izateko.

3. Zergadunak -Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian ezarritakoa betetzeagatik— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan tributatzea hautatzen duenean, lurralde historiko honetako araudia hartuko da kontuan aukerako araubidea aplikatzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan eskuratu duen errenta Espainian lortu den errenta osoaren zatirik handiena denean, eta, EAEko errentan, Bizkaian lortutakoa handiagoa denean beste lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino.

   Zergadunak zerga-itzulketarako eskubidea duenean foru aldundi honek egingo dio itzulketa, errentak Espainiako lurraldearen barruan non lortu dituen kontuan hartu gabe.

**2. artikulua. Ordainarazpena.**

1. Zergaren ordainarazpena kasu hauetan dagokio Bizkaiko Foru Aldundiari:

   a) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak direnean, baldin eta errentok Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutakotzat jotzen badira, foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   b) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisiko edo entitateek establezimendu iraunkorraren bitartez lortutako errentak badira:

      a') Ordainarazpena Aldundiari bakarrik dagokio subjektu pasiboak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu eta, horretaz gain, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan ez bada.

      b') Ordainarazpena Aldundiari bakarrik dagokio subjektu pasiboak soil-soilik Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten badu eta, gainera, aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumen osoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga-egoitza non duen alde batera utzita.

      c') Ekitaldian zehar Bizkaian egin den eragiketa-bolumenarekiko proportzioan, zergadunak lurralde honetan eta beste edozeinetan -lurralde erkidean edo foru lurraldean- jarduten badu, eta aurreko ekitaldiko eragiketa-bolumen osoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga-egoitza non duen alde batera utzita.

2. Zergadunak lurralde batean diharduela ulertuko da, baldin eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluan ezartzen diren irizpideen arabera, ondasun- edo zerbitzu-emateak bertan egiten baditu.

   Ondasun- edo zerbitzu-ematetzat joko dira, hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

3. Eragiketa bolumentzat, berriz, honako hau joko da: zergadunak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

   Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketa bolumenaren proportzioa kalkulatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 6. artikuluko erregelak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekotan emango da, biribilduta eta bi hamartarrekin.

   Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta urte osoari zer bolumen legokiokeen kalkulatuko da.

4. Jarduera ekitaldi horretan hasi denean, ekitaldian bertan egindako eragiketa bolumenari begiratuko zaio; lehenengo ekitaldi hori urtebete baino laburragoa izan bada, berriz, ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta urte osoari zer bolumen legokiokeen kalkulatuko da. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbat izan diren eta non egin diren jakin arte, ekitaldiko eragiketatzat hartuko dira, ondorio guztietarako, zergadunak aurrez kalkulatzen dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

**3. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.**

Foru arau honetan xedatutakoa izango da zerga honetarako agindukoa, eta araua interpretatzeko erabiliko da edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegi erregulatzailea edo Sozietateen gaineko Zergarena, kasu bakoitzean dagokiona.

**4. artikulua. Tratatuak eta hitzarmenak.**

Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

## I. KAPITULUA
## ELEMENTU PERTSONALAK

**5. artikulua. Zergadunak.**

Hauek izango dira zerga honen zergadunak:

a) Foru arau honetako 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliarrak ez diren ez eta zerga honen zerga-egitatea osatzen duten errentak lortzen dituzten pertsona fisikoak eta entitateak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak ez badira.

b) Pertsona fisikoak, nazionalak zein atzerritarrak, baldin eta Bizkaiko zein lurralde erkideko edo foru-araubideko lurraldeko egoiliarrak badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian -elkarrekikotasuna dela bide- beren-beregi xedatutako inguruabarretariko baten ondorioz, eta zerga honen zerga-egitatea osatzen duten errentak lortzen badituzte.

c) Foru arau honetako 38. artikuluak hizpide dituen errentak esleitzeko araubideko entitateak.

**6. artikulua. Egoitza ez izatea Espainiako lurraldean.**

1. Pertsona fisikoak Espainiako lurraldeko ez-egoiliartzat hartuko dira honako egoera hauetako batean ez badaude:

   a) Urte naturalean zehar 183 egun baino gehiago Espainiako lurraldean ematea. Espainiako lurraldean zenbat denbora eman den zehazteko, konputagarriak izango dira kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak, salbu eta zergadunak frogatzen badu zerga-egoitza beste herrialde batean duela. Paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeen kasuan, Zerga Administrazioak galdatu ahal izango du urte naturaleko 183 egun han eman direla frogatzeko.

      Aurreko lerroaldean aipatzen den denbora hori zehazteko ez dira kontuan hartuko zergadunak Espainian egiten dituen aldi baterako egonaldiak, baldin eta egonaldiok dohainik egiten baditu, arlo kultural edo humanitarioko lankidetza-hitzarmenen ondorioz Espainiako administrazio publikoekin hartutako betebeharrak direla-eta.

   b) Espainian kokatuta badago, zuzenean edo zeharka, beren enpresa- edo lanbide-jardueraren edo interes ekonomikoen gune nagusia.

   Zergadunak ohiko egoitza Espainiako lurraldean duela ulertuko da, kontrakoaren frogarik ezean, baldin eta, aurreko irizpideekin bat, Espainiako lurraldean badago haren

ezkontidearen -legez bereizita ez badago- eta haren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza.

2. Ohiko egoitza Espainian duten atzerritarrak ez dira egoiliartzat joko -elkarrekikotasuna dela bide-, baldin eta, batetik, inguruabar hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 4.1 artikuluko a) eta d) arteko letretan jasotzen diren kasuetako baten ondorio bada, eta, bestetik, Espainiako Estatuak parte hartzen duen nazioarteko tratatuetatik eratorritako arau espezifikoak aplikatu behar ez badira.

3. Pertsona juridikoak eta gainerako entitateak Espainiako lurraldean ez-egoiliartzat joko dira, baldin eta ez badute betetzen baldintza hauetako bat ere ez:

   a) Espainiako legeen arabera eratuta egotea.

   b) Egoitza soziala Espainian edukitzea.

   c) Benetako zuzendaritzaren egoitza Espainiako lurraldean egotea.

   Ondorio horietarako, ulertuko da entitate baten benetako zuzendaritzaren egoitza Espainiako lurraldean dagoela handik zuzendu eta kontrolatzen direnean entitatearen jarduera guztiak.

   d) Tributazio eza dagoen herrialde edo lurralde batean kokatuta egotea -Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezartzen da zer den tributazio eza- edo paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean kokatuta egotea, baldin eta Zerga Administrazioak uste izan badu entitate horiek Espainiako lurraldean dutela egoitza kasu hauetan daudelako: entitatearen aktibo nagusiak, zuzenean zein zeharka, Espainiako lurraldean kokatutako ondasunak edo lurralde horretan bete edo erabiltzen diren eskubideak izatea; edo entitatearen jarduera nagusia Espainiako lurraldean egitea, non eta entitate horrek ez duen frogatzen bere zuzendaritza eta benetako kudeaketa beste herrialde edo lurralde hartan egiten direla; edo frogatzen bada arrazoi ekonomiko baliodunak eta funtsezko arrazoi enpresarialak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako eta frogatzen bada, orobat, entitatearen eraketa eta jardunerako arrazoia ez dela baloreen eta bestelako aktiboen kudeaketa soila.

**7. artikulua. Errentak esleitzea.**

Hala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 11. artikuluak hizpide dituen errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei dagozkien errentak, nola haiek jasan dituzten atxikipen eta konturako ordainketak bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, foru arau horretako IV. tituluko VI. kapituluaren 2. atalean eta foru arau honetako VI. kapituluan ezarritakoaren arabera.

**8. artikulua. Errentak indibidualizatzea.**

Pertsona fisikoak diren zergadunei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie; errentak indibidualizatzeari buruzkoa da artikulu hori.

**9. artikulua. Erantzuleak.**

1. Ordaindutako etekinei nahiz gordetzeko edo kudeatzeko aginduta dituen ondasun-eskubideen errentei dagozkien zerga-zorren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, hurrenez hurren, honako hauek: edo zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe sortutako etekinen ordaintzailea, edo zergadunen ondasun-eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea, ondasun-eskubideok establezimendu iraunkor bati afektatuta ez badaude.

   Ez da halako erantzukizunik egongo foru arau honetako 31. artikuluak hizpide duen atxikitzeko edo konturako sarrera egiteko betebeharra aplikatzekoa denean, ezta artikulu

horretako 4. zenbakian aurrez ikusitako kasuetan ere, atxikitzaile izateak dakartzan erantzukizunak gorabehera.

2. Pertsona edo entitate bat ez da etekin baten ordaintzailetzat joko, ordainketa egiteko bitartekaritza hutsa baino egiten ez duenean. Hirugarren baten kontura edo aginduz kopuru bat abonatzea ordainketa-bitartekaritza hustzat hartuko da.

3. Zerga honen zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe sortutako etekinen ordaintzaileari dagokionez, zein establezimendu iraunkor bati atxikita ez dauden eta egoitza paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan daukaten pertsona edo entitateenak diren ondasun edo eskubideen gordailuzain edo kudeatzaileari dagokionez, bada, kasu horiei biei dagokienez, Zerga Administrazioak zuzenean erantzulearekin egin ahal izango ditu bere jarduketa guztiak eta erantzuleari eskatuko zaio zerga-zorra; horretarako, ez da beharko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 40.5 artikuluan xedatutako erantzukizun-adierazpena egiteko aurretiazko administrazio-egintza.

   Gainerako kasuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 40.5 artikuluan xedatzen denari jarraiki galdatuko da erantzukizun solidarioa.

4. Foru-arau honen 10. artikuluko 1. apartatuan aipatutako zergadunei, zeinek establezimendu iraunkor bidez baitihardute, eta foru arau honetako 38. artikuluan aipatutako entitateei dagozkien zerga-zorren ordainketa dela-eta, haien ordezkari izendatutakoak izango dira erantzule solidario.

**10. artikulua. Ordezkariak.**

1. Europar Batasuneko beste herrialde batean egoiliar ez diren zerga honen zergadunek, lortutako errenta autolikidatzeko epea amaitu baino lehen, ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute, zerga hau dela-eta dituzten betebeharrei dagokienez, Zerga Administrazioan zergadunaren ordezkari legez jardun dezan, baldin eta zergadunok establezimendu iraunkorraren bitartez badihardute. Oro bat izendatu beharko dute ordezkaria foru arau honen 24.2 artikuluan adierazitako kasuetan, 38. artikuluan aipatutako kasuetan, eta, azkenik, zergadunak Bizkaiko lurraldean lortutako errentaren zenbatekoa eta ezaugarriak direla-eta edo ondasun higiezin bat edukitzeagatik Zerga Administrazioak hala eskatzen duenean.

   Europako esparru ekonomikoko kide izan baina Europar Batasunekoak ez diren herrialdeen kasuan, aurrekoa ez da aplikatuko haiekin tributuei eta diru-bilketari buruzko informazio-trukearen arloan elkarri eman beharreko laguntzari buruzko araudia dagoenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritako moduan.

   Betebehar bera galdatu ahal izango zaie, orobat, egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean —Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hogeita laugarren Xedapen Gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek— daukaten pertsonei edo entitateei, pertsona edo entitate horiek Espainiako lurraldean betetzen edo erabiltzen diren ondasunen edo eskubideen titular badira; ondorio horietarako ez dira aintzat hartuko bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzen diren baloreak.

   Zergadunak edo zergadunaren ordezkariak Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote izendapena, behar bezala egiaztatuta, izendapena eginez geroko bi hilabeteko epearen barruan.

   Izendapena Zerga Administrazioari jakinarazterakoan ordezkariaren beren-beregiko onarpena batu behar zaio jakinarazpen horri.

2. Pertsona egoiliarren edo Europar Batasuneko beste estatu batean eratutako errentak eratxikitzeko araubideko entitateen kasuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritako legezko eta borondatezko ordezkaritzako

arauekin bat haien ordezkari diharduten pertsonen bidez jardungo dute Zerga Administrazioaren aurrean.

Europako esparru ekonomikoko kide izan baina Europar Batasunekoak ez diren herrialdeen kasuan, aurrekoa aplikatuko da haiekin tributuei eta diru-bilketari buruzko informazio-trukearen arloan elkarri eman beharreko laguntzari buruzko araudia dagoenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritako moduan.

3. 1. zenbakian ezartzen den betebeharra —ordezkaria izendatzea, alegia— beteko ez balitz, Merkataritzako Erregistroan ordezkari moduan agertzen dena jo ahal izango du Zerga Administrazioak establezimendu iraunkorraren edo foru arau honetako 5. artikuluko c) letran aipatzen den zergadunaren ordezkaritzat. Ez balego izendatutako edo inskribatutako ordezkaririk, edo haien izenean kontratatzeko ahalmena duena ez beste pertsona bat izango balitz, Zerga Administrazioak azken hori jo ahal izango du ordezkaritzat.

   Egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean —Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek— daukaten pertsonek edo entitateek ez badute betetzen ordezkaria izendatzeko betebeharra, zergadunen ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea jo ahal izango du Zerga Administrazioak haien ordezkaritzat.

4. Aurreko 1. zenbakian ezartzen den betebeharra ez betetzea zerga arloko arau-haustetzat joko da, eta urratze horri 2.000 euroko diru-isuna ezarriko zaio.

   Egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean —Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek— daukaten zergadunen kasuan, isun hori 6.000 euro izango da.

   Zenbaki honetan ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

**11. artikulua. Zerga-egoitza.**

1. Espainiako lurraldean egoiliar ez diren zergadunek kasu hauetan izango dute zerga-egoitza Bizkaian:

   a) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten dutenean, baldin eta Bizkaian egiten badute negozioen administrazio-kudeaketa edo zuzendaritza.

      Aurreko irizpidea jarraituz ezinezkoa bada zehaztea zerga-egoitza non dagoen, ulertuko da establezimendu iraunkorrek Bizkaian dutela zerga-egoitza, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan egonik, Bizkaiko Lurralde Historikoan duen ibilgetuaren balioa handiagoa bada beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan duen ibilgetuarena baino.

   b) Ondasun higiezinen ondoriozko errentak lortzen direnean, ordezkariaren zerga-egoitza Bizkaian badago eta, bestela, higiezina Bizkaian badago.

   c) Aurreko letretan ageri ez diren gainerako kasuetan, ez-egoiliarraren ordezkariaren edo, halakorik ezean, erantzule solidarioaren zerga-egoitza Bizkaian badago.

2. Ordezkaririk izendatu ez denean, erantzule solidarioaren zerga-egoitzan egindako jakinarazpenek zergadunari berari zuzenean egindako jakinarazpenen balio bera izango dute eta ondorio berak sortuko dituzte. Egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duen herrialde edo lurralde batean -Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek- daukaten pertsonek edo entitateek ordezkaririk izendatzen ez

badute, eta erantzule solidariorik ez badago, haien titulartasuneko edozein eraikinetan egiten diren jakinarazpenek balio bera izango dute.

## II. KAPITULUA
## ZERGAREN MENDE EGOTEA

### 12. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zerga honen zergadunek, zerga hau dela-eta, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera Bizkaian lortutako errentak, diruzkoak nahiz gauzazkoak, horiek dira zerga honen zerga-egitatea.

2. Zerga honi lotutako errentak sor ditzaketen ondasun, eskubide eta zerbitzuen emate nahiz lagapenak ordaindutzat joko dira, kontrakoaren frogarik ezean.

3. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mendeko errentak ez dira zerga honen mendekoak izango.

### 13. artikulua. Bizkaian lortutako errentak.

1. Bizkaiko lurraldean lortu edo sortutako errentatzat joko dira establezimendu iraunkorraren bitartez eta foru arau honetako 1.2 artikuluko b), c) eta d) letretan bildutako erregelen arabera lortutako errentak; erregela horiek pertsona fisikoei zein entitateei aplikatuko zaizkie.

   Kasu hauetan ulertuko da pertsona fisiko batek edo entitate batek establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duela: batetik, edozein titulu dela medio, modu jarraitu edo ohikoan erabiltzen baditu edozein motatako langune edo instalazioak, non bere jarduera osoa edo zati bat burutzen duen; bestetik, egoiliarra ez den zergadunaren izenean eta kontura kontratatzeko baimena duen eta ahalmen horretaz ohikotasunez baliatzen den agente baten bidez jarduten duenean bertan.

   Bereziki, hauek joko dira establezimendu iraunkortzat: zuzendaritzako egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, tailerrak, biltegiak, dendak edo bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio- zein gas-putzuak, harrobiak, nekazaritza-, baso- edo abere-ustiapenak, edo baliabide naturalen ustiapen edo erauzpenerako beste edozein toki eta sei hilabete baino gehiago irauten duten eraikuntza-, instalazio- edo muntaketa-obrak.

2. Bizkaian lortu edo produzitutako errentatzat joko dira establezimendu iraunkorrik gabe lortutako honako errenta hauek:

   a) Ekonomia-ustiapenen etekinak, jarduerak Bizkaiko lurraldean egiten direnean.

   b) Zerbitzu-emateetatik datozen etekinak, hala nola azterlan edo proiektuak egitea edo kudeaketarako laguntza tekniko edo sostengua ematea, baita zerbitzu profesionaletatik datozenak ere, zerbitzu-ematea Bizkaiko lurraldean egin edo erabiltzen denean. Kasu hauetan ulertuko da zerbitzu-emate horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan erabiltzen direla: emate horiek Bizkaiko lurraldean egindako enpresa- edo lanbide-jarduerei zerbitzatzeko direnean, edo Bizkaian dauden ondasunei buruzkoak direnean. Zerbitzu-emate horiek Bizkaiko lurraldean egindako ekonomia-jarduerei partzialki zerbitzatzen dietenean, Bizkaian garatutako jarduerari zerbitzatzen dioten zatian soilik hartuko dira Bizkaian lortutakotzat.

      Zerbitzua non erabiltzen den hartuko da kontuan, zerbitzua egin eta erabiltzen diren tokiak bat ez datozenean.

   c) Artista edo kirolariek Bizkaiko lurraldean egindako jarduera pertsonaletik zuzenean zein zeharka datozen etekinak edo jarduera horrekin zerikusirik duen beste edozein

jardueratatik datozenak, artista edo kirolaria bera ez den beste pertsona edo entitate batek jaso arren ere.

d) Mendeko lanetik zuzenean edo zeharka datozen etekinak, lana Bizkaiko lurraldean egiten denean.

Ondorio hauetarako, kasu hauetan ulertuko da lana Bizkaiko lurraldean egin dela: Bizkaiko Administrazioak ordaindutako ordainsari publikoak direnean; edo ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoek beren lan-jardueran ordaindutako lansariak direnean; edo Bizkaiko egoiliarrak diren erakundeek edo Bizkaian dauden establezimendu iraunkorrek nazioarteko trafikoan ari den itsasontzi edo aireontzi baten barruan betetzen den enplegu batengatik ordaindutako lansariak direnean.

Arestiko lerroaldean esandakoa ez da aplikatuko lana osorik atzerrian egiten denean eta etekin horiek izaera pertsonaleko zerga baten mende daudenean atzerrian.

e) Pentsioak eta antzeko gainerako prestazioak, Bizkaiko lurraldean emandako enplegu batetik datozenean, edo Bizkaiko lurraldean egoiliarra den pertsona edo entitate batek edo Bizkaian dagoen establezimendu iraunkor batek ordaintzen dituenean.

Pentsiotzat joko dira lehenagoko enplegu batengatik ordaindutako ordainsariak, langileak berak zein beste pertsona batek jasotzen dituen begiratu gabe.

Aurreko horien antzeko prestaziotzat joko dira, bereziki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) eta i) letretan aurrez ikusten direnak.

f) Zerga-egoitza Bizkaian duen entitate bateko administratzaileen, Administrazio Kontseiluko kideen edo kontseilu horren ordez ari diren batzordeetako edo ordezkaritza-organoetako kideen ordainsariak, artikulu honetako 4. zenbakian ezarritako zenbatekoan.

g) Zerga-egoitza Bizkaian duten euskal erakunde publikoen funts propioetako partaidetzatik datozen dibidenduak eta bestelako etekinak, baita entitate pribatuen funts propioetako partaidetzatik datozenak ere, artikulu honetako 4. zenbakian ezarritako zenbatekoan.

h) Kapital higigarriaren interesak, kanonak eta bestelako etekinak:

a') Baldin eta zerga-egoitza Bizkaian duten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindu badituzte; halaber, multzo honetan sartuko dira entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutakoak, artikulu honetako 4. zenbakian ezarritako zenbatekoan betiere.

b') Bizkaiko lurraldean erabilitako kapital-emateak ordaintzeko direnean.

Irizpide horiek bat ez datozenean, kontuan hartuko da zein lekutan erabili den ordaintzen den kapital-emate hori.

Kanon edo erregaliatzat hartuko dira ondoren adierazten direnen erabileragatik edo erabilera-emakidagatik ordaintzen diren kopuruak, direnak direlakoak:

- Literatur obren, lan artistikoen edo lan zientifikoen gaineko eskubideak, film zinematografikoen gainekoak barne.

- Patenteak, fabrika- edo merkataritza-markak, marrazkiak edo ereduak, planoak, formulak edo prozedura sekretuak.

- Programa informatikoen gaineko eskubideak.

- Industriako, merkataritzako edo zientzien arloko esperientziei buruzko informazioa.

- Laga daitezkeen eskubide pertsonalak (irudi-eskubideak, esaterako).

- Ekipo industrialak, merkataritzakoak edo zientifikoak.

- Aurrekoen antzeko eskubide guztiak.

Bereziki, halakotzat joko dira Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onetsi duen 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege-dekretuak, Patenteei buruzko 1986ko martxoaren 20ko 11/1986 Legeak eta Markei buruzko 2001eko abenduaren 7ko 17/2001 Legeak babestutako eskubideen erabileragatik edo erabilera-emakidagatik ordaintzen diren kopuruak.

i) Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo haien gaineko eskubideetatik zuzenean zein zeharka datozen etekinak.

j) Bizkaiko lurraldean dauden hiri-ondasun higiezinen titular diren pertsona fisiko zergadunei egotzitako errentak.

k) Ondare-irabaziak:

a') Egoitza Bizkaian daukaten pertsonek edo euskal erakunde publikoek jaulkitako baloreetatik datozenean, baita entitate pribatuek jaulkitakoetatik datozenak ere, artikulu honetako 4. zenbakian ezarritako zenbatekoan.

b') Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higigarrietatik datozenean -baloreetatik datozenak salbu-, edo lurralde horretan bete behar diren eskubideetatik edo bertan gauzatzen direnetatik datozenean.

c') Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan bete behar diren eskubideetatik edo bertan gauzatzen direnetatik datozenean. Bereziki, honako hauek dira letra honetan sartuta daudenak:

- Egoiliarra den zein ez den entitate bateko partaidetzetatik edo eskubideetatik datozen ondare-irabaziak, baldin eta entitate horren aktiboa batez ere euskal lurraldean dauden ondasun higiezinek osatzen badute, eta Bizkaian dauden higiezinen kontabilitate-balioa handiagoa bada gainerako lurralde historikoetako bakoitzean daudenen kontabilitate-balioa baino.

- Egoiliarra den zein ez den entitate bateko eskubideen edo partaidetzen eskualdaketatik datozen ondare-irabaziak, baldin eta eskubide-partaidetza horiek Bizkaian dauden ondasun higiezinen gaineko gozamen-eskubidea ematen badiote haien titularrari.

Ondasunak Bizkaian eta beste lurralde historiko batean edo gehiagotan daudenean, aipatutako irabazi horiek Bizkaian lortutakotzat joko dira, artikulu honetako 4. zenbakian ezarritako zenbatekoan.

d') Zergadunaren ondarera sartzen direnean hala Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ondasunak, nola lurralde horretan bete behar diren eskubideak edo bertan gauzatzen direnak, aurretiazko eskualdaketa batetik etorri ez arren: hala nola jokoaren irabaziak.

3. Aurreko zenbakian zehaztutako irizpideen arabera, errenta bat aldi berean Bizkaian eta beste lurralde batean lortu dela uler daitekeenean, zergen ordainarazpena Bizkaiari egokituko zaio ordaintzailea pertsona fisikoa bada eta ohiko egoitza Bizkaian badu; pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra balitz, berriz, artikulu honetako hurrengo zenbakian xedatutakoa aplikatuko da.

4. Aurreko 2. zenbakiko f) eta g) letretan, h) letrako a') letran zein k) letrako a') eta c') letretan zehazten diren kasuetan, baita 3. zenbakian xedatzen den kasuan ere, horietan guztietan, entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errentak Bizkaiko lurraldean lortu edo produzitutzat joko dira. Hain zuzen ere, zenbateko hauek hartuko dira halakotzat:

   a) Bizkaiko Lurralde Historikoan soilik tributatzen duten entitate edo establezimendu iraunkorrak direnean, ordaintzen dituzten errenta guztiak.

   b) Bizkaiko Zerga Administrazioan nahiz beste zerga-administrazio batzuetan batera tributatzen duten entitate edo establezimendu iraunkorrak direnean, Bizkaian egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaintzen diren errenten zatia.

   Hala ere, letra honetan aipatzen diren kasuetan, Bizkaiko Zerga Administrazioa eskuduna izango da etekin guztiei dagozkien zergak ordainarazteko, baita ez-egoiliarrei dagozkien itzulketak egiteko ere, baldin eta likidazioa ez-egoiliarra ordezkatuz aurkezten duten pertsona, entitate edo establezimendu iraunkorrak ikuskatzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari badagokio; nolanahi ere, batzuetan konpentsazioa egin beharko zaie beste zerga-administrazio batzuei, entitate ordaintzaileak haien lurraldeetan egindako eragiketa-bolumenaren proportzioari dagokion zatiarengatik.

5. Errenta kontzeptu bakoitza bere jatorriaren arabera kalifikatzeko, artikulu honetan xedatutakoa hartuko da aintzat eta, bestela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako irizpideak.

**14. artikulua. Errenta salbuetsiak.**

1. Honako errenta hauek salbuetsita egongo dira:

   a) Azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 7. artikuluan aipatzen diren errentak eta 42. artikuluaren 3. apartatuan adierazitako gauzazko lan-etekinak, pertsona fisikoek jasotakoak (lege hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa da, eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

   b) Kapital propioak hirugarren batzuei lagatzeagatik lortutako interesak eta gainerako etekinak (etekinok Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 35. artikuluan aipatzen dira), eta ondasun higigarrietatik datozen ondare-irabaziak, baldin eta egoitza Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparruko beste estatu batean duten egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe lortuak badira edo egoiliar horiek Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparruko beste estatu batean kokatuta dituzten establezimendu iraunkorren bitartez lortuak badira.

      Europako Ekonomia Esparruko kide diren baina Europar Batasunean ez dauden estatuen kasuan, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta tributu-informazioaren trukatze eraginkorra badago, hots, zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan ezarritakoaren modukoa.

      Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikatuko entitate baten akzio, partaidetza edo bestelako eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare-irabazietan, kasu hauek gertatzen badira:

      1. Entitate horren aktiboa, zuzenean edo zeharka, euskal lurraldean kokaturik dauden ondasun higiezinez osatuta badago nagusiki.

      2. Pertsona fisikoak diren zergadunen kasuan, eskualdaketa egin aurreko hamabi hilabeteetan, zergadunak —zuzenean edo zeharka— entitate horren kapital edo ondarean gutxienik %25eko partaidetza izan badu inoiz.

3. Entitate ez-egoiliarren kasuan, eskualdaketak betetzen ez baditu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 21. artikuluan aurrez ikusitako salbuespena aplikatzeko betekizunak.

c) Zor publikotik eratorritako etekinak, establezimendu iraunkorrik gabe lortuak badira.

d) Pertsona fisiko nahiz juridiko ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulki dituzten baloreetatik sortutako errentak, edonon dagoela ere ordainketen agente gisa diharduten edo baloreen jaulkipen nahiz eskualdaketan bitartekari lana egiten duten finantza-erakundeen egoitza.

Hala ere, baloreen titularra establezimendu iraunkor bat denean, aurreko paragrafoan aipatu diren errentak zerga honen mende geldituko dira, baita, hala badagokio, konturako atxikipenen sistemaren mende ere. Baloreen gordailuzain gisa diharduen finantza-erakunde egoiliarrak egingo du, hain zuzen, konturako atxikipena.

e) Ez-egoiliarren kontuen etekinak, baldin eta zerga honen zergadunei ordaintzen bazaizkie. Etekin horiek ez dira salbuetsita egongo Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko araudian aipatutako entitate erregistratuek establezimendu iraunkor bati egiten badiote ordainketa.

f) Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak, baldin eta nazioarteko itsaso edo aire-nabigazioan erabiltzen diren edukiontzi, itsasontzi edo aireontziak hutsik errentan eman, laga edo eskualdatzeagatik lortuak badira.

Aireontzien kasuan, salbuespena era berean aplikatuko da konpainia errentariak erabilitako aireontzi guztien hegaldietan eginiko distantzia guztiaren %50etik gorakoa bada nazioarteko bidaien erabilera- maila.

g) Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren sozietate filialek Europar Batasuneko beste estatu kide bateko egoiliarrak diren sozietate nagusiei edo azken horiek Batasuneko beste estatu kide batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinak, honako hauek gertatuz gero:

1. Bi sozietateek Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergetako baten zergapean egon behar dute, hartatik salbuetsi gabe (zerga horiek Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauko 2.c) artikuluan aipatzen dira; zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen), eta establezimendu iraunkorrak, berriz, zergapean egon behar dira eta salbuetsi gabe haiek ezarrita dauden estatuan.

2. Mozkinaren banaketa ez izatea sozietate filialaren likidazioaren ondorioa.

3. Bi sozietateek eduki behar dute Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauko eranskinean ezarritako formetako bat (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen, eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 8ko 2014/86/EB Zuzentarauak aldatu zuen).

Beste sozietate baten kapitalean, zuzenean zein zeharka, gutxienez ehuneko 5eko partaidetza duen entitatea hartuko da sozietate nagusitzat. Horrelako kasuetan, beste entitatea sozietate filialtzat joko da. Arestian aipatutako partaidetza hori etenik gabe mantendu behar da banatutako mozkina galdagarria den egunaren aurreko urte osoan edo, bestela, urte bat betetzeko beharrezkoa den denboran zehar mantendu behar da.

Epea zenbatzeko, kontuan hartuko da, gainera, partaidetza hori zein epetan eduki duten, etenik gabe, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan sozietate-talde bereko parte izateko aipatzen diren inguruabarrak betetzen dituzten beste entitateek, haien egoitza

eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra gorabehera. Azken kasu horretan, epea betetzen denean itzuli egingo zaio hark ordaindutako zerga-kuota.

Egoitza non dagoen zehazteko, dagokion estatu kideko legeriari begiratuko zaio, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, erabaki daiteke, elkarrekikotasunaren baldintzapean, g) letra honetan ezarritakoa honako hauei ere aplikatzea: batetik, zuzentarauko eranskinean ezarritakoak ez beste forma juridiko bat duten sozietate filialei; bestetik, Espainiako egoiliarra den sozietate filial batek bere sozietate nagusiari emandako dibidenduei, baldin eta sozietate nagusiak, gutxienez, ehuneko 5etik gorako partaidetza badu —zuzenean zein zeharka—. Nolanahi ere, beti bete behar dira letra honetan ezarritako gainerako baldintzak.

Letra honetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta sozietate nagusiaren boto-eskubide gehienak pertsona fisikoek edo juridikoek badituzte, zuzenean zein zeharka, eta pertsona horiek ez badira Europar Batasuneko estatuetako egoiliarrak edo ez badira gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea duten Europako Esparru Ekonomikoko estatuetako egoiliarrak (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren estatu horiek), salbu eta frogatzen bada arrazoi ekonomiko baliodunak eta funtsezko arrazoi enpresarialak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako.

Halaber, g) letra honetan ezarritakoa oro bat aplikatuko da Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren sozietate filialek Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu bateko egoiliarrak diren sozietate nagusiei edo azken horiek Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinen kasuan, honako hauek gertatuz gero:

1. Sozietate nagusien egoitzak dauden Europako Esparru Ekonomikoko estatuek gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea edukitzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera..

2. Bi sozietateek egon behar dute Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituztenen tributu baliokide baten pean, hartatik salbuetsi gabe (tributu horiek Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauko 2.c) artikuluan aipatzen dira; zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen), eta establezimendu iraunkorrek, berriz, zergapean egon behar dute, eta salbuetsi gabe, haiek ezarrita dauden estatuan.

3. Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliarrak diren sozietate nagusiek Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/EB Zuzentarauko eranskinean ezarritako forma juridikoen baliokidea den forma bat izan behar dute (zuzentarau horretan, Batasuneko estatu kide desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta filialei aplikatu beharreko zerga-araubide erkidea ezarri zen).

4. Aurrekoez gainera, g) letran ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

h) Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizialetan egiten diren baloreak eskualdatzetik edo inbertsio-funtsetako partaidetzak itzultzetik eratorritako errentak, baldin eta establezimendu iraunkorrik gabeko pertsona fisiko edo entitate ez-egoiliarrek lortuak badira, baina egoiliar diren estatuak zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat (informazioa trukatzeko klausula duena) izan behar du sinatuta Espainiarekin.

i) Zerga-oinarrian sartu gabeko erauthor kargura banatutako mozkinak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 33., 34 eta 35. artikuluetan eta hamalaugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, baldin eta errenta horiek partaidetutako

sozietateak atzerrian egindako jardueren ondorio direnean eta jasotzailea Espainiako lurraldeko ez-egoiliarra den pertsona fisiko edo entitate bat denean. Ondorio horietarako, banatu den lehen mozkina zerga-oinarrian sartu gabeko errentetatik datorrela ulertuko da.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko, orobat, mozkinaren jasotzailea erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean egoiliarra denean.

Mozkina banatzen duen entitateak memorian aipatu beharko du zein den zerga-oinarrian sartu gabeko errenten zenbatekoa.

j) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginak 14.3 artikuluan jasotakoaren arabera salbuetsitzat hartu diren errentak (testu hori 2004ko martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onartu zen).

k) Pertsona fisikoek Administrazio Publikoetatik jasotzen dituzten bekak eta bestelako diru-kopuruak, betiere kultura, hezkuntza eta zientzia alorrean izenpeturiko nazioarteko lankidetza-akordio eta -hitzarmenen ondorioz edo nazioarteko lankidetzari buruzko urteko planaren ondorioz ordaindu bazaizkie.

l) ...

m) 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean araututakoen baliokideak diren pentsio-planek, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko egoiliarrak direnek, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, bai eta erakunde horiek Europar Batasuneko beste estatu kide batean kokatutako establezimendu iraunkorren bitartez lortutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak ere.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko erakundeak jotzen dira pentsio-funts baliokidetzat:

- Erakundearen xede bakarra erretiratu, hil edo ezgaituta edo mendetasun-egoeran geratu ondoren onuradunei prestazio osagarria ematea izan behar da, 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8.6 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

- Enpresaren ekarpenak prestazioa jasoko duen partaideari egotzi behar zaizkio zergen ondorioetarako; hari modu ezeztaezinean eskualdatu behar zaio etorkizuneko prestazioa jasotzeko eskubidea.

- Erakundeak lehentasuneko zerga-araubidea eduki behar du, hain zuzen ere pentsio-funts horietara egindako ekarpenen eta enpresen kontribuzioen gaineko zergapetzea geroratzeko aukera ematen duena. Araubide horretan, ekarpen eta kontribuzio guztiek eta haien kudeaketaren ondoriozko etekin guztiek prestazioa jasotzen denean tributatu behar dute.

Letra honetan xedatutakoa modu berean aplikatuko zaie Europako Esparru Ekonomikoaren barruko estatuetako egoiliarrak diren pentsio-plan baliokideei, baldin eta estatuok Espainiarekin sinatu badute edo nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausula duena, edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak araututako inbertsio kolektiboko erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak (zuzentarau horren bidez higigarrien baloreetako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei buruzko lege-, arau- eta

administrazio-xedapenak koordinatu dira). Nolanahi ere, salbuespen honen aplikazioak inolaz ere ezin du ekarri tributazioa txikiagoa izatea errenta horiei egoitza Espainiako lurraldean duten inbertsio kolektiboko erakundeei dagokien Sozietateen gaineko Zergaren tasa aplikatuta sortuko litzatekeena baino.

Letra honetan xedatutakoa modu berean aplikatuko zaie Europako Esparru Ekonomikoaren barruko inbertsio kolektiboko erakundeei, baldin eta estatuok Espainiarekin sinatu badute edo nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausula duena, edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat.

o) Egoitza Espainiako lurraldean duten sozietateek edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar diren sozietateek Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrek egoitza Batasuneko beste estatu batean duten sozietateei edo Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar diren sozietateek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei ordaintzen dizkieten kanonak edo erregaliak, honako betekizun hauek betetzen direnean:

1. Bi sozietateak Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/49/EE Zuzentarauko 3.a) artikuluko iii) ordinalean aipatutako tributuetako baten mende eta salbuetsi gabe egotea (zuzentarau hori Batasuneko estatu kideetako sozietate elkartuen arteko interesen eta kanonen ordainketei aplikatu beharreko zerga-araubide erkideari buruzkoa da).

2. Bi sozietateek Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/49/EE Zuzentarauko eranskinean jasotako formetako bat izatea (zuzentarau hori Batasuneko estatu kideetako sozietate elkartuen arteko interesen eta kanonen ordainketei aplikatu beharreko zerga-araubide erkideari buruzkoa da).

3. Bi sozietateak egoiliar fiskalak izatea Europar Batasunean, eta, errentaren zergapetze bikoitza saihesteko hirugarren estatu batekin sinatutako hitzarmen baten ondorioetarako, ez hartzea hirugarren estatu horretako egoiliartzat.

4. Bi sozietateak sozietate elkartuak izatea. Horren ondorioetarako, bi sozietate elkartutzat joko dira hauetako bat gertatzen denean: batetik, batak bestearen kapitalean gutxienez %25eko partaidetza zuzena edukitzea; bestetik, hirugarren sozietate batek gutxienez %25eko partaidetza zuzena edukitzea bien kapitalean.

   Partaidetza hori etenik gabe mantendu behar izan da etekina ordaindu den egunaren aurreko urtean, edo, bestela, egun horretatik aurrera urtea betetzeko falta den aldian mantendu beharko da.

5. Hala denean, kopuru horiek kengarriak izatea etekinak bera kokatuta dagoen estatuan ordaintzen dituen establezimendu iraunkorrarentzat.

6. Sozietateak bere onurarako jasotzea ordainketa horiek eta ez, ordea, bitartekari soil gisa edo beste pertsona edo sozietate baten agente baimendu moduan; eta, establezimendu iraunkorra bada, berak jasotako kopuruak benetan lotuta egotea bere jarduerarekin eta diru-sarrera konputagarria izatea kokatuta dagoen estatuan zerga-oinarria zehazteko orduan.

Letra honetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta etekinak jasotzen dituen sozietatearen boto-eskubide gehienak Europar Batasuneko estatu kideetako egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoak badituzte, zuzenean zein zeharka, salbu eta frogatzen bada arrazoi ekonomiko baliodunak eta funtsezko arrazoi enpresarialak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako.

2. Inoiz ere ez zaie aurreko zenbakiko b), h) eta l) letretan xedatutakoa aplikatuko erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeen bitartez lortutako etekin edo ondare-irabaziei.

Era berean, aurreko zenbakiko g) letran jasotakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiaren zerga-egoitza erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dagoenean.

### 15. artikulua. Zergaren mende egotea eta eragiketa lotuak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten zergadunek establezimendu horri egotz dakiokeen errenta osoaren zioz tributatuko dute, errenta horiek non lortu diren alde batera utzita, foru arau honetako III. kapituluan xedatutakoarekin bat etorriz.

   Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten zergadunek bereiz tributatuko dute, kargapeko errentaren sortzapen oso edo partzial bakoitzeko, errenten artean batere konpentsaziorik egin gabe eta foru arau honetako IV. kapituluan xedatutako eran.

2. Zerga honen zergadunek zergadunoi lotuta dauden pertsonekin edo entitateekin egiten dituzten eragiketei Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42-46. artikuluetako xedapenak aplikatuko zaizkie.

   Ondorio horietarako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42.3 artikuluan zehazten direnak joko dira pertsona edo entitate lotutzat. Bizkaiko lurraldean kokatuta dagoen establezimendu iraunkor baten kasuan, beti ulertuko da establezimendu horrek lotura duela bere etxe zentralarekin, etxe zentral horren beste establezimendu iraunkor batzuekin eta etxe zentralari edo horren establezimendu iraunkorrei lotuta dauden beste pertsona edo entitate batzuekin, eta berdin izango da horiek guztiak Espainiako lurraldean edo atzerrian kokatuta dauden.

   Nolanahi ere, establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten zergadunek kengarriak izan daitezkeen zuzendaritzako gastuak eta administrazioko gastu orokorrak baloratzeko eska diezaiokete Zerga Administrazioari, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 3-5 zenbakietan xedatuta-koarekin bat.

## III. KAPITULUA
## ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAREN BITARTEZ LORTUTAKO ERRENTAK

### 16. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egozteko errentak.

1. Hona establezimendu iraunkorrari egozteko errentaren osagaiak:

   a) Establezimendu iraunkorrak berak egindako jarduera edo ustiapen ekonomikoen etekinak.

   b) Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementuetatik eratorritako etekinak.

   c) Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementuetatik eratorritako ondare-irabazi edo -galerak.

   Hauek hartzen dira establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementutzat: establezimenduaren xede den jardueraren garapenari funtzionalki lotutakoak.

   Entitate baten funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten aktiboak kasu honetan bakarrik hartuko dira establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementutzat: establezimendua Merkataritza Erregistroan erregistratutako sukurtsala bada eta erregelamendu bidez ezarritako beharkizunak betetzen dituenean.

   Ondorio horietarako, afektatutako ondare-elementutzat hartuko dira desafektatu ondorengo hiru zergaldien barruan eskualdatzen diren elementuak.

2. Zergadun berak aurretiaz inportatutako ondasunen berresportazioetan, hauexek hartuko dira kontuan:

a) Aldi baterako inportatutako ibilgetuko elementuak badira, ondare-aldaketarik gertatu ez izana, erabilera-aldia dela-eta egindako ordainketei aplikatu ahal zaien tratamendua gorabehera.

b) Establezimendu iraunkor batek garatutako jardueretan erabiltzeko eskuratutako ibilgetuko elementuak badira, ondare-aldaketa egon izana.

c) Izakintzat hartzen diren elementuak badira, jarduera edo ustiapen ekonomiko baten etekina egon izana, positiboa zein negatiboa.

### 17. artikulua. Establezimendu iraunkorren dibertsitatea.

1. Zergadun batek hainbat jarduera-zentro baditu Espainiako lurraldean, zentro horiek establezimendu iraunkor ezberdinak direla ulertuko da eta, ondorioz, bereiz zergapetuko dira, inguruabar hauek gertatzen direnean:

   a) Argi eta garbi bereiz daitezkeen jarduerak burutzen dituztenean.

   b) Haien kudeaketa bereizirik egiten bada.

2. Ezin izango da establezimendu iraunkor ezberdinen arteko errenta-konpentsaziorik egin.

### 18. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea.

1. Establezimendu iraunkorraren zerga-oinarria Sozietateen gaineko Zergari buruzko araubide orokorraren xedapenen arabera zehaztuko da, baina hurrengo letretan xedatutakoa ere kontuan hartuko da:

   a) Zerga-oinarria zehazterakoan ez dira kengarriak izango establezimendu iraunkorrak etxe zentralari edo haren establezimendu iraunkorretariko bati ordaintzen dizkion kanon, interes edo komisioak, laguntza teknikoko zerbitzuen ordain gisa edo ondasun edo eskubideak erabili edo lagatzeagatik ordaintzen badira.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, kengarriak izango dira atzerriko banketxeen establezimendu iraunkorrek beren etxe zentralari edo beste establezimendu iraunkor batzuei beren jarduera burutu ahal izateko ordaintzen dizkieten interesak.

   b) Zerga-oinarria zehazterakoan kengarria izango da zuzendaritzako gastuetan eta administrazioko gastu orokorretan establezimendu iraunkorrari dagozkion zentzuzko zatia, betiere gastuok baldintza hauek betetzen badituzte:

      a') Gastuok establezimendu orokorraren kontabilitateko egoera-orrietan islatzea.

      b') Banatutako zenbatekoak eta banatzeko irizpide zein moduluak jasota uztea, aitorpenarekin batera aurkeztutako informazio-txostenean.

      c') Hartutako egozketa-irizpideek arrazionaltasun eta jarraitutasunez aplikatzea.

   Egozketa-irizpideak establezimendu iraunkorrak egindako faktoreen erabileran eta faktore horien kostu osoan oinarrituta badaude, betetzat joko da irizpideon arrazionaltasunari buruzko baldintza.

   Aurreko lerroaldean adierazitako irizpidea erabiltzea ezinezko gertatzen denean, hurrengo hauetariko baten bat zein erlaziotan dagoen begiratuta egin daiteke egozketa:

   - Negozio-zifra.

   - Zuzeneko kostu eta gastuak.

- Ekonomia-jarduera edo -ustiapenei afektatutako ibilgetu materialeko elementuetan egindako batez besteko inbertsioa.

- Ekonomia-jarduera edo -ustiapenei afektatutako elementuetan egindako batez besteko inbertsio osoa.

Zenbaki honen arabera kengarriak izan daitezkeen zuzendaritzako gastuak eta administrazioko gastu orokorrak zehazterakoan Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 3-5 zenbakietan jasotzen den prozedura aplikatu ahal izango da, erregelamendu bidez zehazten den eran.

c) Entitatearen kapital propioen kostuari dagozkion zenbatekoak ezin dira inola ere egotzi, nahiz eta kapital horiek -zuzenean edo zeharka- establezimendu iraunkorrari afektatuta egon.

d) Ezin da aplikatu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 38. eta 47. artikuluetan nahiz IV. tituluko V. kapituluan xedatutakoa.

e) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako espezialitateak aplikatu ahal izango zaizkie foru arau horretako 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei, betiere establezimendu iraunkorraren parte den entitate ez-egoiliarra mikroenpresa,enpresa txiki edo ertaintzat jo badaiteke, artikulu horretan xedatutakoaren arabera.

2. Establezimendu iraunkorrak bere etxe zentralarekin edo zergadunaren beste establezimendu iraunkor batzuekin -Espai-niako lurraldekoekin zein atzerrikoekin- edo zergadun horri lotutako beste sozietate edo pertsona batzuekin egiten dituen eragiketak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42-46. artikuluetako xedapenen arabera baloratuko dira.

3. Establezimendu iraunkorrak bere zerga-oinarri negatiboak konpentsatu ahal izango ditu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 55. artikuluak xedatutakoarekin bat.

4. Establezimendu iraunkor batek egindako eragiketek ez badute sarrerak ekarriko dituen merkataritzako ziklo oso bat ixten, eta ziklo hori zergadunak edo zergadunaren establezimendu batek edo hainbat establezimenduk amaitzen badute, baina inolako kontraprestaziorik sortu gabe -establezimendu iraunkorrak sortutako gastuen estaldurari dagozkionak alde batera utzita- eta ekoizpen edo zerbitzu guztiak edo horien zati bat zergaduna bera ez den hirugarrenentzat erabiltzen ez badira, bada, orduan, erregela hauek aplikatu ahal izango dira:

a) Establezimendu iraunkorraren sarrerak eta gastuak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42-46. artikuluetako arauen arabera baloratuko dira, eta zerga-zorra, berriz, Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean aplikatu beharreko arauen eta artikulu honetako aurreko zenbakietan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

b) Subsidiarioki, erregela hauek aplikatuko dira:

a') Zerga-oinarria zehazteko, Ogasun eta Finantza Sailak horretarako adieraziko duen portzentajea aplikatuko zaie establezimendu iraunkorrak bere xedea den jarduera egiteko izan dituen gastu guztiei. Kopuru horri enpresaren xedekoak ez diren sarrera gehigarrien zenbateko osoa gehituko zaio, hala nola interesak edo kanonak, eta establezimenduari lotutako ondare-elementuen ondoriozko ondare-irabaziak eta -galerak ere bai.

Erregela horren ondorioetarako, establezimendu iraunkorraren gastuak osorik konputatuko dira, gutxitzerik edo konpentsaziorik egin gabe.

b') Kuota osoa zerga-oinarriari karga-tasa orokorra aplikatuz zehaztuko da, eta zerga-oinarrian ezingo dira aplikatu araubide orokor horretan araututako kenkari edo hobariak.

5. Establezimendu iraunkorren jarduna hauek egitea bada: sei hilabete baino gehiago irauten duten eraikuntza-, instalazio- edo muntaketa-obrak, urte-sasoiko edo urtaroko ekonomia-jarduerak edo -ustiapenak, edo natur baliabideen azterketa jarduketak; orduan, establezimendu horiei honako erregela hauen arabera galdatuko zaie zerga hau:

a) Foru arau honetako 24.2 eta 25. artikuluetan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ekonomia-jarduera edo -ustiapenen errententzat xedatutakoaren arabera; arau hauek aplikatuko dira horretarako:

a') Sortzapenari eta aitorpenak aurkezteari buruzko arauak establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei buruzkoak izango dira.

b') Zergadunak salbuetsita egongo dira izaera orokorreko kontabilitate- eta erregistro-betebeharretatik. Hala ere, gorde egin beharko dituzte zerga hau dela-eta lortu dituzten sarreren eta egin dituzten gastuen frogagiriak, eta Zerga Administrazioak eskuratzeko moduan eduki; berdin egin behar dute, horrelakorik egin badute, atxikipenekin eta konturako sarrerekin eta azken horiei buruzko aitorpenekin ere.

Era berean, izena eman behar dute entitateen aurkibidean, eta beren zerga-egoitza Bizkaiko lurraldean dagoela adierazi; orobat, gertatzen diren aldaketak jakinarazi behar dituzte.

b) Zergadunak, hala ere, aurreko artikuluetan establezimendu iraunkorrentzat xedatutako araubide orokorra hauta dezake, aukeran. Edozein modutan ere, establezimendu iraunkorrak ez badarama lortutako erranten kontabilitate bereizirik, aurreko a) letran adierazitako sistema aplikatu behar da, nahitaez. Aukera hori hautatu nahi izanez gero, berariaz adierazi behar da entitateen aurkibidean izena ematea eskatzen denean.

c) Aurreko a) letran bildutako sistemari jarraitzen dioten zergadunei ezin izango zaizkie aplikatu, inolaz ere, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak dauden kasurako zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenetan ezartzen diren arauak.

6. Zerga-oinarrian merkatuko balio normalaren eta kontabilitateko balioaren arteko diferentzia sartuko da, ondare-elementuak honako hauek direnean:

a) Egoitza iraunkorra Espainiako lurraldean izanik jarduerari uzten dion establezimendu bati afektatuta daudenak.

b) Espainiako lurraldean era iraunkorrean finkatutako establezimendu bati afektatuta egon ondoren atzerrira lekualdatzen direnak.

c) Espainiako lurraldean izanik jarduera atzerrira lekualdatzen duen establezimendu bati afektatuta daudenak.

7. Aurreko zenbakiko b) eta c) letretako kasuetan, ondare-elementuak Europar Batasuneko estatu kide batera lekualdatzen direnean, edo Europako Esparruko Ekonomikoko estatu kide batera, zeinak Espainiarekin edo Europar Batasunarekin sinaturik daukan tributu-kredituen kobrantzan elkarri laguntzeko akordio bat, Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan (zerga, eskubide eta bestelako neurriei dagozkien kredituak kobratzeko elkarrekiko laguntzari buruzkoa) ezartzen den elkarrekiko laguntzaren parekoa, orduan, zergadunak aukera izango du aurreko zenbakian xedatutakotik ondorioztatzen den zerga-kuota zatikatzeko eta bost urtean ordaintzeko, zatiki beretan, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Zergadunak zerrenda bat aurkeztu behar du, zerga hau dela-eta aurkeztu behar izan duen azken aitorpenarekin batera. Zerrenda horretan bereizita agertu behar dira

aurreko 6. zenbakian xedatutakoa aplikatu behar zaien ondare-elementuak eta bakoitzaren kontabilitateko balioa; gainera, hauek ere agertu behar dira: elementu bakoitzaren merkatuko balio normalaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia, bai eta elementu bakoitzari kuota likidoan dagokion zatiaren zenbatekoa ere.

b) Zergadunak, zenbaki honetan ezarritako baldintzetan, kuotaren ordainketa zatikatzea erabaki badu, kuota horren zenbatekoa kobratuko dela bermatu behar da, kreditu-erakunde batek edo elkarrekiko berme-sozietate batek emandako abal solidario baten bidez edo kauzio-aseguruaren ziurtagiri baten bidez; hori egiteko, baina, ez ordaintzeko arrisku frogagarria eta erreala egon behar da.

Lehen zatikia ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta hurrengo 6 hilabeteetan zerga-bilketako organoak uste badu badagoela kuota ez ordaintzeko arriskurik, zergadunari errekerimendu bat helaraziko zaio horren berri emateko eta adierazteko 10 eguneko epean, ?errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera? behar diren bermeak aurkeztu behar dituela. Errekerimenduari ez bazaio kasurik egiten, edo kasu eginda ere, ulertzen bada ez dela berme nahikoa aurkeztu edo ez dela behar bezala justifikatu hura ez dela beharrezkoa, zorraren zenbateko osoa exijituko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak (2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua) 60.1b) artikuluan ezartzen dituen epeetan. Zorra ez bada epe horretan ordaintzen, epe exekutiboa hasiko da, eta premiamendu prozedura abiaraziko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak (2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan jasotako moduan.

Aukera bakarrik baliatuko da aurreko zenbakiko b) letran jasotako aktiboen transferentzia gertatu den zergaldiari dagokion zergaren aitorpenean, edo jarduera lekualdatzearen zioz amaituko zergaldiari dagokion zergaren aitorpenean (aurreko zenbakiko c) letran jasotako kasua), eta lehen zatikia zergaldiari dagokion aitorpena egiteko borondatezko epearen barruan ordaindu beharko da.

Urteko beste lau zatikietako bakoitzaren mugaeguna eta exijigarritasuna, haietako bakoitzarengatik sortutako berandutze-interesenekin batera, elkarren segidan gertatuko dira, aurreko paragrafoan adierazitako zergaldiko aitorpena borondatez aurkezteko epea amaitu eta urtebete iragan ondoren.

Zergadunak eskatu ahal izango du murriztu dadila b) letran xedatutakoa aplikatzearen ondorioz eman beharreko bermea, egindako ordainketak kuota zatikatu osoan hartzen duen proportzio berean murriztu ere.

Zenbaki honetan jasotako berezitasunak alde batera utzita, zatikapen horri aplikatuko zaio Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak (2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua) eta hura garatzen duen araudiak berandutze interesen sortzapenari eta bermeen eraketari buruz ezarritakoa.

8. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, zatikapenak indarraldia galduko du, zatikatutako kuota osoa eta dagozkion berandutze-interesak ordainaraziko dira, kasu hauetan:

a) Ukitutako ondare-elementuak hirugarren batzuei eskualdatzen zaizkienean.

b) Ukitutako ondare-elementuak geroago hirugarren estatu kide batera lekualdatzen direnean eta estatu hori 7. zenbakiko lehen paragrafoan adierazitakoen artean ez dagoenean.

c) Establezimendu iraunkor baten jarduera geroago hirugarren estatu kide batera lekualdatzen denean eta estatu hori 7. zenbakiko lehen paragrafoan adierazitakoen artean ez dagoenean.

d) Zergaduna likidazio-prozesuan dagoenean eta exekuzio kolektiboko prozedura bat irekita duenean, hala nola konkurtso bat edo haren pareko prozedura bat.

e) Zergadunak ez duenean ordainketa egiten zatikapenean aurreikusitako epean.

Zenbaki honetako a) eta b) letretan aipatutako elementuen eskualdatze eta lekualdatzeen kasuan, ondare-elementuen eskualdatze edo lekualdatze partziala bada, zatikapenak indarraldia galduko du, baina bakarrik merkatuko balioaren eta elementu horien balio fiskalaren arteko diferentzia positiboari dagokion zerga-zorraren zati proportzionalari dagokionez, betiere zergadunak frogatzen badu eskualdatze edo lekualdatze horrek ondare-elementuetako bati edo batzuei baino ez diela ukitzen.

Indarraldia zenbaki honetako a), b) eta c) letretan jasotako kasuetan galtzen denean, zatikapena indargabeturik duten kopuruak hilabeteko epean ordaindu beharko dira, zatikapenak indarraldia galtzen duenetik aurrera. Ordainketa hilabeteko epe horretan egiten ez bada, premiamenduzko prozedura zatikapena indargabeturik duten kopuruetarako bakarrik abiatuko da, eta haiek eskatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak (martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua) 60.3 artikuluan ezartzen dituen epeak aplikatuko dira. Ordaintzen den zenbatekoa zatikapenaren azken epeei aplikatuko zaie. Kopuruak ez badira ezarritako epeetan ordaintzen, gainerako zor zatikatua epez kanpo dagoela joko da, eta haren aurka premiamendu prozedura abiaraziko da.

Zatikapenak indarraldia galtzen badu zenbaki honetako d) letran ezarritako kasuan, zorra bere osoan geratuko da epez kanpo, eta hilabeteko epea izango da, indarraldia galtzen duenetik aurrera, hura osorik ordaintzeko. Zorra epe horretan ordaintzen ez bada, epe exekutiboa hasiko da, eta premiamendu-prozedura abiaraziko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak (2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan jasotako moduan.

Zatikapenak indarraldia galtzen badu zenbaki honetako e) letran ezarritako kasuan, ordaindu ez den zatikiagatik bakarrik abiaraziko da premiamendu-prozedura, eta ordainketa eskatzeko aplikatuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak (2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua) 60.3 artikuluan ezartzen dituen epeak. Honako hauek eskatuko dira: zatikiaren zenbatekoa, ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik zatikapenaren epea amaitu arte sortzen diren berandutze-interesak, eta bi kontzeptu horien baturaren gainean aplikatu beharreko epe exekutiboko errekargua.

Kopuru horiek ez badira ordaintzen aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, ordaintzeke dauden gainerako zatikiak epez kanpokotzat joko dira, eta premiamendu-prozedura zor guztiengatik abiatuko da. Ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ordaindu gabeko zatikia ordaintzeko epea amaitu arte sortzen diren berandutze-interesak eskatuko dira.

9. Espainiako lurraldera ondare-elementuak eskualdatu edo jarduerak lekualdatzen diren kasuetan, eskualdatzeari edo lekualdatzeari irteerako zergapetze bat aplikatu bazaio Europar Batasuneko estatu kide batean, hori guztia Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164/EB Zuzentaraua (barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko jardunbideei aurre egiteko arauak ezartzen dituena), orduan, irteerako estatu kideak kalkulatutako balioa balio fiskaltzat hartuko da Espainian, merkatuko balioa islatzen ez duenean izan ezik.

10. Artikulu honen 6. zenbakian xedatutakoa ez da aplikatuko eta, beraz, transferitutako ondare-elementuen merkatuko balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia ez da sartuko zerga-oinarrian, baldin eta transferentzia hori lotuta badago bermeen finantzaketa edo ematearekin, edo transferentzia kapitaleko zuhurtziazko beharkizunak betetzeko edo likidezia kudeatzeko, eta, betiere, aurreikusita badago elementu horiek Espainiako lurraldera itzuli behar direla eta gehieneko urtebeteko epean afektaturik geratu behar direla.

11. Honako hauek ez dira kengarriak izango fiskalki:

a) Etxe nagusiarekin edo haren establezimendu iraunkorren batekin egindako eragiketei dagozkien gastuak edo galerak, bai eta etxe nagusi horri edo haren establezimendu

iraunkorren bati lotutako pertsona edo erakunde batekin egindakoak ere, baldin eta, etxe nagusi edo establezimendu iraunkor horretako diru-sarreren esleipenean bestelako kalifikazio fiskal baten ondorioz, diru-sarrerarik sortzen ez bada, edo zergapetze bikoitza salbuesten edo ezabatzen duen diru-sarrerarik sortzen ez bada.

b) Etxe nagusiaren edo lotutako pertsona edo erakunde baten establezimendu iraunkor batekin egindako eragiketei dagozkien gastuak edo galerak, baldin eta diru-sarrerarik sortzen ez badute, edo zergapetze bikoitzetik salbuetsitako edo ezabatutako diru-sarrerak sortzen badituzte, establezimendu iraunkor hori ez delako fiskalki halakotzat hartzen dagokion herrialde edo lurraldean.

c) Etxe nagusiarekin edo haren establezimendu iraunkorren batekin edo lotutako pertsona edo erakunde batekin egindako barne-eragiketengatik zenbatetsitako gastuak, onuradunaren herrialdeko edo lurraldeko legeria dela-eta diru-sarrerarik sortzen ez bada, edo diru-sarrera salbuetsia edo zergapetze bikoitza ezabatzekoa sortzen bada, betiere Foru Arau honen eta beste herrialde edo lurralde bateko legediaren arabera zergapeko etxe nagusiaren edo establezimendu iraunkorraren diru-sarrerarekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera kendu ez diren gastuak hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietan konpentsatu ahal izango dira establezimendu iraunkorrak lortutako errenta garbi positiboekin, baldin eta zerga ordaindu behar badute Foru Arau honen eta beste herrialde edo lurralde bateko legediaren arabera.

d) Establezimendu iraunkorreko eragiketei dagozkien gastuak edo galerak, baldin eta horiek ere fiskalki kengarriak badira etxe nagusian edo lotutako pertsona edo erakunde batean, Foru Arau honen eta beste herrialde edo lurralde bateko legediaren arabera zergapeko diru-sarrera batekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera kendu ez diren gastuak hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietan konpentsatu ahal izango dira establezimendu iraunkorrak lortutako errenta garbi positiboekin, baldin eta zerga ordaindu behar badute Foru Arau honen eta beste herrialde edo lurralde bateko legediaren arabera.

Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a) Diru-sarrera bat Foru Arau honen eta beste herrialde edo lurralde bateko legediaren arabera zergapetzen dela ulertuko da diru-sarrera hori zergapetze bikoitzetik salbuetsita edo ezabatuta ez dagoenean.

b) Foru Arau honen 15.2 artikuluan adierazitakoaz gain, loturadun pertsona edo erakundetzat joko dira:

a') Erakunde baten boto-eskubideei edo kapitalaren jabetzari dagokionez, beste batekin batera jarduten duen pertsona edo erakundea. Pertsona edo erakunde hori partaidetza baten titular gisa tratatuko da, beste pertsonaren jabetzakoak diren erakunde horren boto-eskubide guztiei edo kapitalaren jabetzari dagokienez.

b') Zergadunak kudeaketan eragin esanguratsua duen erakunde bat edo zergadunaren kudeaketan eragin esanguratsua duen erakunde bat.

**19. artikulua. Zerga-zorra.**

1. Aurreko artikuluaren arabera zehaztutako zerga-oinarriari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 56.1 artikuluan zehaztutako karga-tasetatik dagokiona aplikatuko zaio, establezimendu iraunkorraren jarduera hidrokarburo naturalen hobien eta lurrazpiko biltokien azterketa, ikerketa eta ustiaketa denean izan ezik; izan ere, horrelakoetan,

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 56.6 artikuluan zehaztutako karga-tasa aplikatuko zaio.

2. Gainera, entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek lortutako errentak atzerrira transferitzen direnean, %20ko karga osagarria ezarriko zaie establezimendu iraunkorraren errenten kargura transferitutako zenbatekoei, foru arau honetako 18.1.a) artikuluan aipatutako ordainketak barne direla, baldin eta establezimendu iraunkorraren zerga-oinarria finkatzeko gastu kengarri izan ez badira.

   Karga osagarri horren aitorpena eta ordainketa establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako ezarritako moduan eta epeetan egingo dira.

3. Zergapetze osagarria ez zaie aplikagarria izango honako hauei:

   a) Zerga-egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean duten entitateek establezimendu iraunkorren bidez Bizkaiko lurraldean lortu dituzten errentei.

   b) Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatu duen estatu batean zerga-egoitza duten entitateek establezimendu iraunkorren bitartez Bizkaiko lurraldean lortutako errentei, baldin eta hitzarmenean espresuki bestelakorik finkatu ez bada eta elkarrekiko tratamendua badago.

4. Zergaren kuota osoan eta kuota likidoan honako hauek aplika daitezke:

   a) a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko V. tituluko II. eta III. kapituluetan aipatzen diren kenkariak, gutxieneko tributazioa dela-eta foru arau horretako 59. artikuluan ezarritako arauak aplikatuz.

   b) Konturako sarreren eta zatikako ordainketen atxikipenak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 68. artikuluan xedatzen den moduan.

5. Egin beharreko kenkariak establezimendu iraunkorrean gertatzen diren inguruabarren arabera egingo dira, eta ezin dira kontuan hartu, horretarako, zergadun beraren beste establezimendu batzuetan gertatzen direnak.

6. Benetan egindako atxikipenen, konturako sarreren eta zatikako ordainketen zenbatekoa handiagoa bada zerga honen kuota osoan artikulu honetako 4 zenbakiko a) letran aipatutako kenkariak aplikatzearen ondorioz ateratzen den zenbatekoa baino, Zerga Administrazioak bere kabuz itzuliko du gaindikin hori, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 129. artikuluan ezarritako epeetan eta baldintzetan.

**20. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.**

1. Zergaldia bat etorriko da establezimendu iraunkorrak aitortutako ekitaldi ekonomikoarekin, eta ezin da hamabi hilabetetik gorakoa izan.

   Beste bat, ezberdina, aitortu ez denean, zergaldia urte naturala dela ulertuko da.

   Zergaldiaren jakinarazpena zerga honen ziozko lehen autolikidazioa aurkeztu behar denean egingo da, eta zergaldi hori beren-beregi aldatzen ez den bitartean, hurrengo aldietarako ere bera dela ulertuko da.

2. Zergaldia amaitutzat joko da edo establezimendu iraunkorrak bere jarduerari uzten dionean edo, bestela, desafektatu egiten denean establezimendu iraunkorrari lotuta egindako inbertsioa, baina baita jarduera atzerrira lekualdatzean, establezimendu iraunkorra beste pertsona fisiko edo entitate bati eskualdatzean, etxe zentralak egoitza aldatzean edo titularra hiltzean ere.

3. Zerga zergaldiko azken egunean sortuko da.

### 21. artikulua. Autolikidazioa.

1. Establezimendu iraunkorrek autolikidazioa aurkeztu beharko dute, eta dagokien zerga-zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen eran eta tokian eta hark ezarritako agiriak aurkeztuz.

   Autolikidazioa zergaldia amaitu osteko sei hilabeteen ondorengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

2. Foru arau honetako 20.2 artikuluko kasuak gertatzen direnean, hau izango da autolikidazioa aurkezteko epea: establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako oro har ezarritako epea, kasu hori gertatzen den egunetik aurrera zenbatuta; orobat, ezin daiteke entitateen aurkibidean baja hartzeko baimenik eman harik eta autolikidazioa aurkeztu arte.

### 22. artikulua. Kontabilitate, erregistro eta forma-betebeharrak.

1. Establezimendu iraunkorrek kontabilitate bereizia egin behar dute, egiten dituzten eragiketei eta haiei lotutako ondare-elementuei buruzkoa.

2. Aldi berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegi erregulatzailean entitate egoiliarrei eskatzen zaizkien gainerako kontabilitate-, erregistro- eta forma-betebeharrak ere bete beharko dituzte.

### 23. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Establezimendu iraunkorrek zerga honen ziozko likidazioaren konturako ordainketak egin beharko dituzte, hala denean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren peko entitate egoiliarrek dituzten baldintza beretan.

2. Aldi berean, atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharko dituzte, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren peko entitate egoiliarrek dituzten baldintza beretan.

## IV. KAPITULUA
## ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK

### 24. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Oro har, zerga honen zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten etekinei dagokien zerga-oinarria etekin horien zenbateko osoa izango da. Zenbateko hori kalkulatzeko, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legean ezarritako arauak aplikatu behar dira (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu). Ezin da, baina, murrizketarik aplikatu.

2. Zerbitzu-emate, laguntza tekniko, ingeniaritza-kontratuen ondoriozko instalazio eta muntaia obra eta, oro har, establezimendu iraunkorrik gabeko ekonomia-jarduera eta -ustiapenetan, honako hauen arteko diferentzia da zerga-oinarria: sarrera osoak, batetik, eta pertsonal-gastuak, obra edo lanei lotutako gaien hornidura-gastuak zein hornikuntza-gastuak, bestetik, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

3. Berraseguru-eragiketen ondoriozko etekinei dagokien zerga-oinarria berraseguratzaile ez-egoiliarrari berraseguruan lagatako primen zenbatekoa izango da.

4. Ondare-irabazien zerga-oinarria kalkulatzeko, gertatutako ondare-aldaketa bakoitzari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legean ezarritako arau hauek aplikatu behar zaizkio: batetik, III. tituluko II. kapituluko 4. atalean ezarritakoak, 33. artikuluko 2. zenbakia izan ezik; bestetik, X. tituluko 6. atalean ezarritakoak, 94. artikuluko 1. zenbakiko a) letrako 2. lerroaldea izan ezik.

Entitate ez-egoiliarrei dagokienez, ondare-irabazia dohaineko eskuratze batetik badator, eskuratutako elementuak merkatuan duen balio arrunta izango da haren zenbatekoa.

Foru arau honetako 13.2.k) artikuluko c') azpiletran zehazten diren ondare-irabaziak badira, eta irabazi horien jatorria baldin bada egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duten herrialde edo lurralderen batean (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek) duten entitateetako eskubide edo partaidetzen eskualdaketa, orduan, eskualdaketa- balioa zehazteko, Bizkaiko lurraldean kokatuta dauden ondasun higiezinek edo ondasun horien gaineko gozamen-eskubideek eskualdaketaren unean daukaten merkatu-balioari begiratuko zaio, proportzionalki.

Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan tributatu badu egoitza-aldaketaren ondorioz 35/2006 Legeko 95 bis artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera lortutako ondare-irabaziak direla-eta (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu), eskualdaketari dagokion ondare-irabazia kalkulatzeko hartuko den eskuraketa-balioa hau izango da: artikulu horretan aipatzen den ondare-irabazia zehazteko kontuan hartu zen akzioen edo partaidetzen merkatu-balioa.

5. Pertsona fisiko ez-egoiliarrei dagokienez, Bizkaian dauden ondasun higiezinei egotzitako errenta 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 85. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

6. Zergadunaren egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean badago, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

    1. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinen zerga- oinarria kalkulatzean kengarriak izango dira hauek:

        a) Pertsona fisikoen kasuan, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legean zehazten diren gastuak (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu), baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztaezina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

        b) Entitateen kasuan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2014ko azaroaren 27ko 27/2014 Legean ezarritako gastuak, baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztaezina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

    2. Ondare-irabazien zerga-oinarria kalkulatzeko, gertatutako ondare-aldaketa bakoitzari honako hauetan ezarritako arauak aplikatu behar zaizkio: 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko III. tituluko II. kapituluko 4. atala eta lege bereko X. tituluko 6. atala, 94.1.a) artikuluko 2. lerroaldea izan ezik (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

    Zenbaki honetan ezartzen dena berdin aplikatuko zaie gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliarrei (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren estatu horiek).

### 25. artikulua. Zerga-kuota.

1. Zerga-kuota kalkulatzeko, aurreko artikuluaren arabera kalkulatutako zerga-oinarriari karga-tasa hauek aplikatuko zaizkio:

    a) Oro har, %24. Nolanahi ere, karga-tasa %19 izango da zergadun hauen kasuan: Europar Batasuneko beste estatu kide bateko egoiliarrak edo gure lurraldearekin zergei buruzko informaziotrukea duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliarrei (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren estatu horiek).

    b) Foru arau honetako 1. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko ez-egoiliarrek jasotako pentsioak eta gainerako antzeko prestazioak, eskala honen arabera kargatuko dira, haiek jasotzeko eskubidea sortu duen pertsona edozein izanik ere:

| Pentsioaren urteko zenbatekoa (Hainbat eurotaraino) | Kuota: Eurotan | Pentsioaren gainerakoa (Hainbat eurotaraino) | Aplikatu beharreko tasa Ehunekoa |
|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 12.000 | 8 |
| 12.000 | 960 | 6.700 | 30 |
| 18.700 | 2.970 | Hortik aurrera | 40 |

    c) %8: foru arau honetako 1. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko ez-egoiliarren lan etekinak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun ez badira, Espainiako ordezkaritza diplomatikoetan eta kontsularretan lan egiten badute, eta ezinezkoa bada Espainiak bere egiten dituen nazioarteko tratatuetatik eratorritako berariazko arauak aplikatzea.

    d) %1,5: berraseguru-eragiketetatik eratorritako etekinak direnean.

    e) %4: egoitza atzerrian duten itsas- edo aire-nabigazioko entitateak direnean, baldin eta beren itsasontzi edo aireontziak Bizkaiko lurraldean sartzen badira.

    f) %19, hauek direnean:

        1. Entitate baten funts propioetan parte hartzeagatik lortutako dibidenduak eta bestelako etekinak.

        2. Kapital propioak hirugarren bati lagatzeagatik lortutako interesak eta bestelako etekinak.

        3. Ondare-eskualdaketak direla-eta agerian jartzen diren ondare-irabaziak.

    g) %2: Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten pertsona fisikoek jasotzen dituzten lan-etekinei, baldin eta sasoiko langile atzerritarrentzat eratutako iraupen jakineko kontratuen ondorioz eta lan araudiak ezarritakoaren arabera jasotzen badira.

2. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunek Bizkaian kokatutako ondasun higiezinak eskualdatuz gero, eskuratzailea behartuta egongo da %3 atxiki eta ordaintzera edo, bestela, hitzartutako kontraprestazioari dagokion konturako sarrera egitera, ondasun horiei dagokien zergaren konturako ordainketa gisa.

    Paragrafo honetan aipatzen den konturako sarrera ez da egin beharko egoitza Espainiako lurraldean duten sozietateen eraketa eta kapital-zabalkuntzetan ondasun higiezinak ematen diren kasuetan.

Arau-haustea dela-eta jar daitezkeen zehapenak eragotzi gabe, goian aipatutako atxikipena edo konturako sarrera ordaindu ez bada, atxikipen edo konturako sarrera horren eta zergaren artean txikiena den zenbatekoaren ordainketari atxikita geratuko dira eskualdatu diren ondasunak.

3. Foru arau honetako 13.2.k) artikuluko c') letrako ondare-irabaziak badira, eta irabazi horien jatorria baldin bada egoitza gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukerik ez duten herrialde edo lurralderen batean (Zergei buruzko Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren herrialde eta lurralde horiek) duten entitateetako eskubide edo partaidetzen eskualdaketa, orduan, Bizkaiko lurraldean kokatuta dauden ondasun higiezinek zerga ordaindu beharra ekarriko dute.

   Dena den, ondasun higiezin horien titularra zerga-egoitza Espainian duen entitate bat bada, entitate horretan zergadunari zuzenean edo zeharka dagozkion eskubideak edo partaidetzak geratuko dira zergaren mende.

**26. artikulua. Kenkariak.**

Kuotari honako kenkariok bakarrik ezarriko zaizkio:

a) Dohaintzen ziozko kenkariak, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 68.3 artikuluan xedatutakoaren arabera (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

b) Zergadunaren errenten gainean egin diren atxikipenak edo konturako sarrerak.

**27. artikulua. Sortzapena.**

1. Zerga honen sortzapena une honetan gertatuko da:

   a) Etekinak direnean, galdagarriak diren unean edo kobratzen diren datan, data hori lehenagokoa bada.

   b) Ondare-irabaziak direnean, ondare-aldaketa gertatzen denean.

   c) Hiri-ondasun higiezinei dagozkien errenta egotzien kasuan, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

   d) Gainerakoetan, dagozkion errentak galdagarriak diren unean.

2. Ustezko errentak -foru arau honetako 12. artikuluan aipatzen direnak- galdagarriak diren unean sortuko dira edo, bestela, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

3. Zergaduna hilez gero, egozteko zeuden errenta guztiak heriotzaren datan joko dira galdagarritzat.

**28. artikulua. Autolikidazioa.**

1. Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta daude autolikidazioa aurkeztera, baita zerga hau dela-eta dagokien zerga-zorra zehaztu eta ordaintzera ere, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen eran, tokian eta epeetan.

2. Foru arau honetako 9. artikuluan definitutako erantzule solidarioek aitorpena egin dezakete eta, era berean, zorra ordain dezakete.

3. Zerga honen zergadunei ez zaie autolikidazioa aurkeztu beharrik ezarriko, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin badute foru arau honetako 31. artikuluan aipatzen diren errentak direla-eta. Horren salbuespen izango dira inbertsio kolektiboko erakundeei

buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsetan izaniko parte hartzeak itzultzetik izaniko ondare irabaziak, baldin eta aplikatutako atxikipena txikiagoa bada foru arau honetako 24. eta 25. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera kalkulatutako zerga-kuota baino.

### 29. artikulua. Betebehar formalak.

1. Foru arau honetako 24.2 artikuluan aipatu errentak lortzen dituzten zergadunek erregelamendu bidez ezartzen diren sarrera eta gastuen erregistroak egin beharko dituzte.

2. Atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar badute, entitateen aurkibidean inskribatu beharko dira eta erregelamendu bidez ezartzen diren sarrera eta gastuen erregistroak egin beharko dituzte.

### 30. artikulua. Atxikipenak.

1. Establezimendu iraunkorrek burutzen dituzten zatikako ordainketak eta jasotzen dituzten errentak direla-eta ezartzen zaizkien zergarekiko atxikipenak eta konturako sarrerak Ekonomia Ituneko I. kapituluko 2 eta 3. ataletan ezarritako erregelen arabera galdatuko dira.

2. Zergapekoek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten errentei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak Bizkaiko Foru Aldundiak soilik galdatuko ditu, errentok Bizkaian lortutakotzat joz gero, foru arau honetako 13. artikuluan ezarritakoarekin bat.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetako 13. artikuluko 2. zenbakiko f) eta g) letretan, h) letrako a') letran, k) letrako a') eta c') letretan eta 3. zenbakian aipatutako kasuetan, atxikipen eta konturako sarrera horiek Bizkaiko Foru Aldundiak galdatuko ditu, atxikipena aplikatu behar duenak Bizkaian egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, Ekonomia Ituneko I. kapituluko 3. ataleko berariazko erregelak aplikatuz.

### 31. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra.

1. Honako hauek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute, zerga honi lotutako errenten kasuan, halako errentarik ordaintzen badute:

   a) Egoitza Espainiako lurraldean duten entitateak, errentak esleitzeko araubidean daudenak barne.

   b) Egoitza Espainiako lurraldean eduki eta ekonomia-jarduerak burutzen dituzten pertsona fisikoak, jarduera horiek egiterakoan ordaindutako errentak direla-eta.

   c) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duten zergadunak eta horrelakorik gabe jarduten dutenak, baina, azken kasu horretan, ordaintzen dituzten lanaren etekinen gainean bakarrik; zergadunok atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute, gainera, foru arau honetako 24. artikuluko 2. zenbakian aipatutako errentak lortzeko kengarriak diren gastuak izanik atxikipena aplikatu behar zaien beste etekin batzuen gainean.

2. Atxikipena egiteko betebeharra duten subjektuek egin beharreko atxikipen edo konturako sarreraren zenbatekoa hau izango da: foru arau honetan zerga hau dela-eta establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei dagokien zerga-zorra zehazteko ezartzen diren xedapenak aplikatuz lortzen den zenbatekoa, edo kasuan kasuko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batean ezarritakoak aplikatuz lortzen den zenbatekoa; horretarako guztirako ez da kontuan hartuko foru arau honetako 24. artikuluko 2. eta 6. zenbakietan, 26. artikuluan eta 33. artikuluko 7. zenbakian ezartzen dena.

   Aurrekoa gorabehera, erregelamendu bidez xedatutakoa hartu beharko da aintzat konturako sarrera kalkulatzeko.

Zenbaki honetako lehen paragarafoan aurreikusitakoa gorabehera, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsen parte hartzeetako itzulketetako atxikipenak kalkulatzeko oinarria erreglamenduz zehaztuko da.

3. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra duten subjektuek atxikipen edo konturako sarrera horri dagokion sarrera Bizkaiko Foru Aldundian egiteko betebeharra berenganatuko dute, eta nahiz eta atxikipena edo konturako sarrera egin ez, sarrera, aldiz, beti egin beharko dute.

4. Ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharko -arti-kulu honetako 5. zenbakian ezartzen duen deklaratzeko betebeharra gorabehera- errentak salbuetsita badaude foru arau honetako 14. artikuluan edo aplikagarria den zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batean xedatutakoaren arabera.

   Ez da atxikipenik egin beharko honako hauen kasuan:

   a) Zerga honen establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei ordaindutako errentak, zerga ordaindu dela edo errenta salbuetsita dagoela egiaztatzen bada.

   b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko hamalaugarren xedapen gehigarriko 4.c) zenbakian aipatzen diren errentak.

   c) Erregelamendu bidez ezartzen diren errentak.

5. Atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharra duen subjektuak atxikitako kopuruei edo kontura sartutako kopuruei buruzko autolikidazioa aurkeztu behar dio Bizkaiko Foru Aldundiari, eta behar den kopurua sartu behar dio, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako leku, modu eta epean; atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharrik ez dagoenean, aldiz, aitorpen negatiboa aurkeztu behar dio. Aldi berean, atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpen bat aurkeztuko du, erregelamendu bidez zehaztutako edukiarekin.

   Atxikipenak edo konturako sarrerak egiteko betebeharra duen subjektuak haiei dagozkien agiriak gorde behar ditu eta egin dituen atxikipenen edo konturako sarreren egiaztapenak eman behar ditu, arauz zehazten diren baldintzetan.

6. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetako 25. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoak indarrean jarraituko du.

**32. artikulua. Laneko errenten gaineko atxikipena egiteko betebeharra, egoitza aldatzen denean.**

Zerga honen zergadunak izan ez arren atzerrira lekualdatzearen ondorioz zergadun bilakatuko diren besteren konturako langileek zirkunstantzia horren berri eman diezaiokete Zerga Administrazioari, Espainiako lurraldetik noiz irtengo diren adierazita. Hori guztia egingo da, soil-soilik, lan-etekinen ordaintzaileak zerga honen zergaduntzat har ditzan.

Besteren konturako langileek hala eskatzen dutenean, Zerga Administrazioak egiaztagiri bat emango die langileoi, erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren arabera. Langile horiek Espainiako lurraldean egoiliarra den edo establezimendu iraunkorra duen lan-etekinen ordaintzaileari emango diote egiaztagiri hori, eta bertan adierazita utzi beharko da noiztik egingo diren zerga honi dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.

Aurrekoa gorabehera, langileak berak Zerga Administrazioaren aurrean egiaztatu behar du zein den bere zerga-egoitza berria.

## V. KAPITULUA
## ENTITATE EZ-EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA

### 33. artikulua. Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia.

1. Paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarrak diren entitateek, edozein titulu dela bide, ondasun higiezinak nahiz haien gaineko gozamen- eta luperketa-eskubide errealak jabetzan edo edukitzan badituzte Bizkaian, bada, orduan, entitateok zerga honen mende egongo dira, urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko den karga berezi baten bidez. Karga hori sortzapenaren osteko hurrengo urtarrilean aitortu eta ordaindu behar da, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen tokian eta eran.

2. Karga bereziaren zerga-oinarria hau izango da: ondasun higiezinen katastro-balioa. Katastro-baliorik ez dagoenean, Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako aplikatu behar diren xedapenen arabera zehaztutako balioa erabiliko da.

3. Karga bereziaren tasa %3 izango da.

4. Karga bereziaren zergadunek ez badute karga berezi hori aurreko 1. zenbakian ezarritako epean autolikidatu eta ordaintzen, karga ordaintzea galdatu ahal izango zaie, haien ondasun higiezinen gaineko premiamendu-prozedura erabiliz. Prozedura horri hasiera emateko, titulu nahikoa izango da Zerga Administrazioak ziurtagiri bat ematea, non adierazten duen amaitu egin dela karga berezi hori ordaintzeko borondatezko epea baina ez dela ordainketarik egin. Ziurtagiri horretan, gainera, adierazi behar da zein den karga berezi horren zenbatekoa.

   Karga bereziaren mende dauden entitateek Bizkaian kokatuta dauden ondasun higiezinak eskualdatzen dituztenean, eskualdatutako ondasunak karga berezi hori ordaintzeari lotuta geratuko dira.

5. Ondasun higiezinen gaineko karga berezia ez zaie honako hauei galdatuko:

   a) Atzerriko estatu eta instituzio publikoei eta nazioarteko erakundeei.

   b) Espainian, jarraian edo ohikotasunez, higiezinaren ukantza edo errentamendu soiletik bereiz daitezkeen ekonomia-ustiapenak burutzen dituzten entitateei, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera.

   c) Baloreen bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen duten sozietateei.

6. Aurreko 1. zenbakian aipatutako entitateetako batek parte hartzen badu beste pertsona edo entitate batzuen ondasun edo eskubideen titulartasunean, entitate horri ondasun edo eskubideon titulartasunean duen partaidetzaren arabera dagokion balioaren zatiaren zioz galdatu ahal izango zaio entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia.

7. Entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga bereziaren kuota gastu kengarria izango da, foru arau honetako aurreko artikuluen arabera ezarri behar den zergaren zerga-oinarria zehazteko.

## VI. KAPITULUA
## ERRENTAK ESLEITZEKO ARAUBIDEAN DAUDEN ENTITATEAK

### 34. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.

1. Foru arau honetako 7. artikuluak hizpide dituen entitateek zerga honen zergadunak badituzte beren kideen artean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauko IV. tituluko VI. kapituluaren 2. atalean xedatutakoa aplikatu beharko dute, Espainian edo atzerrian eratutako entitateentzat kapitulu honetan aurrez ikusitako espezialitateekin.

2. Era berean, aurreko zenbakiak hizpide dituen entitateetako kideak zerga honen zergadunak badira, kapitulu honetan jasotako espezialitateak aplikatuko dituzte.

## 1. ATALA
## ERRENTAK ESLEITZEKO ARAUBIDEAN DAUDEN ENTITATEAK ESPAINIAN ERATUTAKOAK

### 35. artikulua. Ekonomia-jardueraren bat egiten duten entitateak.

Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek ekonomia-jardueraren bat egiten badute Bizkaiko lurraldean, entitate horretako kide ez-egoiliarrak establezimendu iraunkorra duten zergaduntzat hartuko dira zerga honi dagokionez.

### 36. artikulua. Ekonomia-jarduerarik egiten ez duten entitateak.

1. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek ekonomia-jarduerarik egiten ez badute Bizkaiko lurraldean, entitate horretako kide ez-egoiliarrak establezimendu iraunkorrik gabeko zergaduntzat hartuko dira zerga honi dagokionez, eta haiei esleitu beharreko errentaren zatia foru arau honetako IV. kapituluko arauen arabera zehaztuko da.

2. Kasu horretan, eta 3. zenbakian xedatutakoa gorabehera, errentak esleitzeko araubidean dagoen entitateak konturako sarrera egin beharko du, jasandako atxikipenean kide ez-egoiliarrari dagokion zatiaren eta esleitutako errentaren gainean foru arau honetako 31. artikuluan xedatutakoa zuzenean aplikatuz gero aterako litzatekeen atxikipenaren arteko diferentziaren bestekoa, hain zuzen.

3. Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinak eskualdatzen badira eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitateko kideetako bat ez-egoiliarra bada, eskuratzaileak atxikipena egingo du hitzartutako kontraprestaziotik kideoi dagokien zatiaren gainean: foru arau honetako 25.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz egingo du atxikipena.

4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko du zein era, leku eta epetan bete behar den 2. zenbakian ezarritako betebeharra.

## 2. ATALA
## ERRENTAK ESLEITZEKO ARAUBIDEAN DAUDEN ENTITATEAK, ATZERRIAN ERATUTAKOAK.

### 37. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak, atzerrian eratutakoak.

Atzerrian eratutako entitateak errentak esleitzeko araubidean dauden entitatetzat hartuko dira, baldin eta haien izaera juridikoa Espainiako legeen arabera eratutako errentak esleitzeko araubideko entitateen izaera juridikoaren berdina edo antzekoa bada.

### 38. artikulua. Espainiako lurraldean presente dauden entitateak.

1. Errentak esleitzeko araubidean dagoen eta atzerrian eratu den entitate batek ekonomia-jardueraren bat egiten badu Bizkaiko lurraldean, eta jarduera hori -osorik edo zati batean- modu jarraitu edo ohikoan egiten badu, edozein motatako lan-gune edo instalazioak medio, edo entitate horrek -entitatearen izenean eta haren kontura- kontratatzeko baimena duen agente baten bidez jarduten badu Bizkaian, bada, orduan, entitate hori zerga honen zergaduna izango da eta urteko autolikidazio bat aurkeztuko du, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen duen moduan, honako erregela hauen arabera:

    1. Zerga-oinarria hau izango da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 55. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarritik entitateko kide ez-egoiliarrei esleitu beharreko errentaren zatia, errenta hori non lortu den begiratu gabe.

2. Kuota osoa zehazteko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 56.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasa aplikatuko zaio zerga-oinarriari.

3. Kuota hori gutxitu egin ahal izango da, foru arau honetako 19.4 artikuluak establezimendu iraunkorraren bitartez aritzen diren zergadunentzat baimentzen dituen hobari eta kenkariak aplikatuz. Konturako ordainketak ere kendu ahal izango dira kuotan, kide ez-egoiliarrei eslei dakiekeen errentari dagokion zatian betiere.

2. Entitate horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 56. artikuluan aipatzen den aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute, entitatearen kide egoiliarrei eslei dakiekeen errentaren zatiarengatik.

3. Arestiko 1. zenbakiak hizpide dituen zergadunak zerga honen konturako zatikako ordainketak egitera behartuta egongo dira: autolikidazioa egin beharko dute eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan egin beharko dute ordainketoi dagokien sarrera.

4. Arestiko 1. zenbakiak hizpide dituen entitateetako kide ez-egoiliarretako batek zergapetze bikoitzeko hitzarmen bat dagoela argudiatzen badu, entitateak ordaindutako kuotak kideok ordaindutakotzat hartuko dira, haiei dagokien zatian.

**39. artikulua. Espainiako lurraldean presente ez dauden entitateak.**

1. Errentak esleitzeko araubidean dagoen eta atzerrian eratu den entitate batek ez badu ekonomia-jarduerarik egiten Bizkaiko lurraldean -aurreko artikuluko 1. zenbakian zehaztutako moduan egin ere-, kide ez-egoiliarrak zerga honen establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunak izango dira eta haiei esleitu beharreko errentaren zatia foru arau honetako IV. kapituluan xedatutakoa aplikatuz zehaztuko da.

2. Espainiako lurraldean lortzen diren errenten gaineko atxikipen edo konturako ordainketei ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 55.2 artikuluan xedatutakoa. Hona hemen nola egingo diren atxikipenak eta konturako ordainketak:

   a) Ordaintzaileari kreditatuz gero zein den entitateko kideen egoitza eta bakoitzari zein proportziotan esleitzen zaion errenta, kide bakoitzari dagokion atxikipena aplikatuko da, inguruabar horiek kontuan hartuta eta kide bakoitzari dagokion zergaren arabera.

   b) Ordaintzaileak kreditatu gabetzat baditu arestiko letrako inguruabarrak, zerga honen arauen arabera aplikatuko ditu atxikipena edo konturako ordainketa, kontuan hartu gabe non dagoen kideon egoitza eta zer salbuespen jasotzen dituen foru arau honetako 14. artikuluak. Atxikipen-tasa hau izango da: foru arau honetako 25. artikuluko 1. zenbakiaren arabera dagokiona.

   Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatea paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean eratuta dagoenean, aplikatu beharreko atxikipena beti egingo da arestiko b) letran ezarritako arauarekin bat.

   Atxikipen eta konturako sarrera hori bazkidearen, jaraunslearen, erkidearen edo partaidearen ezarpen pertsonaletik kendu ahal izango da, errentak esleitzen zaizkien proportzio berean.

3. Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinak eskualdatzen badira eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitateko kideetako bat ez-egoiliarra bada, eskuratzaileak atxikipena egingo du hitzartutako kontraprestaziotik kideoi dagokien zatiaren gainean: foru arau honetako 25.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz egingo du atxikipena.

4. Artikulu honek hizpide dituen entitateek ez dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 56. artikuluak aipatutako informazio-betebeharrak izango.

## VII. KAPITULUA
## BESTE XEDAPEN BATZUK

### 40. artikulua. Europar Batasuneko estatu kideetako egoiliarrak diren zergadunentzako aukera.

1. Zerga honen zergadunak, Europar Batasuneko estatu kide bateko pertsona fisiko egoiliarra bada eta kreditatzen badu bere helbidea edo ohiko egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean daukala, bada, orduan, aukera izango du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zergadun gisa tributatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan, betiere ondoren aipatuko diren errentak direla-eta zergaldi horretan benetan tributatu badu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan eta honako inguruabar hauek ere gertatzen badira:

   a) Ekitaldian zehar Espainian lan-etekinengatik eta ekonomia-jardueren etekinengatik gutxienez bere errenta osoaren %75 lortu izana.

   b) Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako errenta Espainian lortutako errenta osoaren zatirik handiena izatea.

   c) Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutako errenta beste bi lurralde historietako bakoitzean lortutakoa baino handiagoa izatea.

   Aurreko a) eta b) letretan xedatutakoari dagokionez, errentok beren zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legean aurrez ikusitakoaren arabera (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu).

   Aurreko c) letran xedatutakoari dagokionez, errentok beren zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aurrez ikusitakoaren arabera.

2. Hau izango da zergapetu ahal izango den errenta: artikulu honetan araututako aukerako araubideari hautatzen duen zergadunak Espainian lortutako errenta guztiak. Errentak konputatzeko haien zenbateko garbiak hartuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aurrez ikusitakoaren arabera.

3. Aplikatuko den karga-tasa hau izango da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako arauak zergadunak zergaldian lortutako errenta guztiei aplikatzetik ateratzen den batez besteko tasa, berdin dela errentak non lortu diren eta ordaintzailearen egoitza zein den, baina kontuan izanik behar bezala kreditatutako inguruabar pertsonal eta familiarrak.

   Zergaren batez besteko karga-tasa bi hamartarrekin adieraziko da.

4. Zerga-kuota kalkulatzeko, batez besteko karga-tasa aplikatu behar zaio Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den zergadunak likidatzen den zergaldian lortutako errentei dagokien likidazio-oinarriaren zatiari; likidazio-oinarri hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako arauen arabera kalkulatutako da.

5. Zergaldia nahiz zergaren sortzapen-aldia zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Arauak zerga horren zergadunentzat ezartzen duena hartu behar da aintzat.

6. Artikulu honetan araututako aukerako araubidea aplikatu behar zaien pertsona fisikoek Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadun izaten jarraituko dute.

7. Aukerako araubide hori ezin zaie inola ere aplikatu erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliar diren zergadunei.

8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 98. artikuluak ezarritako familia-unitateen modalitateetako batean sartzen diren zergadunek eskatu ahal

izango dute artikulu honetan arautzen den aukerako araubidea haiei aplikatzeko, foru arau horren X. tituluan jasotako baterako tributaziorako arauak kontuan izanik, baina betiere erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen badira.

9. Artikulu honetan ezartzen dena berdin aplikatuko zaie gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliarrei (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren estatu horiek).

10. Aukerako araubide horren edukia erregelamendu bidez garatuko da.

### 41. artikulua. Behin-behineko likidazioa.

1. Tributuak kudeatzeko organoek behin-behineko likidazioa egin ahal izango dute, halako likidazioa egin behar denean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 124. artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Aurreko zenbakian adierazitakoa gorabehera, Zerga Administrazioak, ondoren, egiaztapena eta ikerketa egin ahal izango ditu.

### 42. artikulua. Zerga-zorraren gaineko oinordetza.

Zergaduna hiltzen bada, kausatzailearen oinordekoek, Zergei buruzko Foru Arauko 89.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, bete egin beharko dituzte zergadunak zerga hau dela-eta bete gabe utzi zituen zerga-betebeharrak, zehapenak alde batera utzita.

### 43. artikulua. Zergadunaren ondare-erantzukizuna.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ondorioz sortzen diren zerga-zorrak Kode Zibileko 1365. artikuluan aipatutakoen parekotzat hartuko dira, eta, ondorioz, irabazpidezko ondasunek zuzeneko erantzukizuna izango dute Foru Ogasunaren aurrean, ezkontideetariko batek, edozeinek, kontzeptu hori dela-eta hartutako zorrengatik.

Goiko paragrafoan xedatzen dena orobat aplikatuko zaie 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratzen diren izatezko bikoteei, noiz eta bikoteak ezartzen duen ondare- eta ekonomia-araubideari Kode Zibileko manu hori aplikatu behar zaionean eta zergadunak establezimendu iraunkorrean jarduten duenean.

### 44. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Zerga hau dela-eta egindako arau-hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta foru arau hori garatzeko emandako arautegian xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

### 45. artikulua. Jurisdikzio-ordena.

Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa izango da -aurretik ekonomia-administraziozko bidea agortu eta gero- foru arau honetan aipatzen diren gaietako edozein dela-eta Administrazioaren eta zergadun, atxikitzaile eta gainerako zergapekoen artean gerta daitezkeen izatezko eta zuzenbideko eztabaidak ebazteko jurisdikzio eskudun bakarra.

### 46. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontu egindako ordainketen kenkaria.

Subjektu bat egoitza aldatzeagatik bihurtzen bada zergadun, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egindako ordainketak zerga horren kontura egindako atxikipentzat edo sarreratzat hartuko dira, urte hasieratik Zerga Administrazioaren aurrean egoitza aldatu dela egiaztatzen den arte egindakoak, hain zuzen, baldin eta kontura egindako ordainketa horiek zergadunak jasotako eta zerga honen mendeko errentei badagozkie.

# XEDAPEN GEHIGARRIAK

## Lehenengoa. Arauetako aipamenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzko arautegian foru arau honen bidez indargabetzen den 1999ko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauari buruz egiten diren aipamen guztiak arau honetako xedapenei buruzkoak direla ulertuko da (5/1999 Foru Araua Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa da).

## Bigarrena. Kapital-murrizketa edo jaulkipen-primaren banaketa.

Akzioen edo partaidetzen jaulkipen-primaren edo kapital-murrizketaren ondoriozko etekinei ez zaie egin behar Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokion atxikipenik edo konturako sarrerarik. Erregelamendu bidez ezarri ahal izango da kasu horietan atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra.

## Hirugarrena. Ondare-sozietateen mozkinen banaketa eta partaidetzen eskualdaketa Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan.

1. Ondare-sozietateen araubide berezia aplikatu den zergaldietan lortutako mozkinak banatzen direnean, establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadun diren pertsona fisikoek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian ezartzen dena aplikatuko dute, edozein delarik ere ondare-sozietateek lortutako mozkinak banatzen dituen entitatea, banaketa egiten den garaia edo entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga-araubidea.

2. Ondare-sozietateetako partaidetzak eskualdatzen badira, berriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 47.1.c) artikuluan ezartzen dena aplikatuko da, edozein delarik ere eskualdaketa egiten den unea eta entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga-araubidea, baina betiere eskualdatzailea establezimendu iraunkorra duen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergadun den pertsona fisikoa bada.

## Laugarrena. Adiskidetasunezko prozedurak.

1. Nazioarteko hitzarmenen eta tratatuen aplikazioa dela-eta beste estatu batzuetako administrazioekin sor litezkeen gatazkak hitzarmen edo tratatuetan bertan xedatzen diren adiskidetasunezko prozeduren bidez ebatziko dira; nolanahi ere, egokiak izan litezkeen errekurtsoak edo erreklamazioak aurkezteko eskubidea ere egongo litzateke.

2. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa orobat aplikatuko zaie Europar Batasuneko beste estatu kide batzuekiko auziak ebazteko mekanismoei, auziok errentaren eta ondarearen zergapetze bikoitza kentzea xedatzen duten nazioarteko hitzarmen eta tratuen ondoriozkoa direnean. Europar Batasunean auzi fiskalak ebazteko mekanismoei buruzko Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko 2017/1852 Zuzentarauan jasota dauden mekanismo horiek.

3. Administrazio biek adiskidetasunezko prozedura batean lortutako akordioa berau irmoa den unean edo epean aplikatuko da.

   Ondorio horietarako, egun honetan joko da akordioa irmoa dela: interesdunek akordioaren edukiarekin ados daudela eta adiskidetasunezko prozeduran aztertu diren tributu-betebeharreko elementuak aurkaratzeari uko egiten diotela adierazteko agintari eskudunek gainerako estatu ukituetako agintari eskudunei egindako azken jakinarazpena jasotzen den datan. Errekurtsoak hasita badaude, akordioa une honetan izango da irmoa: behin ukitutako pertsonak prozedura horiei ?zeinak lotuta dauden adiskidetasunezko prozeduran aztertu diren tributu-betebeharreko elementuekin? amaiera emateko neurriak hartu direlako frogak ukitutako estatu kideetako agintari eskudunei aurkeztu ondoren.

4. Ondore horietarako, erregelamendu bidez ezarriko da adiskidetasunezko prozedurok ebazteko prozedura, bai eta haren ondoriozko akordioa aplikatzekoa ere.

   Zerga Administrazioa arduratuko da prozedura izapidetzeaz eta Espainiaren posizioa finkatzeko beharrezkoak diren txostenak prestatu eta erabakiak hartzeaz, eta Espainiako Erresumako agintaritza eskudunari bidaliko dio espedientea, aurrera eraman dezan kasuan-kasuan aplikatu behar den prozeduraren nazioarteko fasea, hitzarmen-tratatuotan ezarritakoarekin bat.

5. Ezingo da errekurtsorik jarri akordio horien aurka, akordiook aplikatuz ematen diren administrazio-egintzaren edo -egintzen aurka jar litezkeen errekurtsoak gorabehera.

6. 

   1) Adiskidetasunezko prozeduretan, zorraren sarrera automatikoki etengo da, interesdunak hala eskatuz gero, baldin eta honako hauek bermatzen badira, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan: zorraren zenbatekoa, etendurak eragiten dituen berandutze-interesak eta etendura eskatzen den unean bidezkoak izan litezkeen errekarguak.

      Etendura administrazio- edo jurisdikzio-bidean eskatzeko aukera dagoen bitartean zorraren sarrera ezin da aurreko lerroaldean zehazten den bezala eten.

   2) Honako berme hauek bakarrik onartuko dira aurreko zenbakian zehazten den etendura automatikoa lortzeko:

      a) Diru-gordailua edo balore publikoen gordailua egitea.

      b) Kreditu-erakunde baten edo elkarrekiko berme-sozietate baten berme edo fidantza solidarioa izatea, edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria.

   3) Adiskidetasunezko prozedurak zerga-zor guztiari eragiten ez badio, soilik eten ahal izango da adiskidetasunezko prozedurek eragindako zenbatekoaren sarrera.

7. 1. zenbakian xedatutakoarekin bat, aldi berean izapidetzen badira nazioarteko hitzarmen edo itunetan jasotako adiskidetasunezko prozedura eta berrikuste-prozedura bat, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritakoetako bat, orduan, berrikuste-prozedura geldieran utziko da, ?baina adiskidetasunezko prozeduran aztertzen diren tributu-betebeharreko elementuei dagokienez bakarrik?, harik eta azken prozedura hori amaitu arte.

8. Zehapenak badaude eta adiskidetasunezko prozeduraren arbitraje-fasera iristea eragozten badute, 7. zenbakian xedatutakoa ez da aplikatuko, administrazio-bidean zehapenen aurkako errekurtsoa jarri bada. Halakoetan, arbitraje-batzorderako sarbidea eragotziko da, harik eta zehapena dela-eta administrazio-bidean ebazpen irmoa eman arte edo ebazpen judiziala eman arte.

9. 90/436/EEE Hitzarmenaren babesean izapidetutako prozeduren kasuan, administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzibidean 10. zenbakiko zehapenen aurka edozein errekurtso edo erreklamazio aurkezten bada, orduan, adiskidetasunezko prozeduraren izapidetzea geldieran utziko da, lehen errekurtsoa jarri denetik zehapena dela-eta administrazio-bidean ebazpen irmoa eman arte edo ebazpen judiziala eman arte.

   Tartean diren enpresei zehazpen bat jarri bazaie eta hura irmoa bada, ez da onartuko aurreko paragrafoan aipatutako adiskidetasunezko prozedura hastea, edo prozedura amaitzeko arrazoi izango da.

10. 8. eta 9. zenbakietan ezarritako ondoreetarako, honako hauek dira zehapenak:

a) Zigor Kodearen 305. eta 305. bis artikuluetan aipatutako herri-ogasunaren aurkako delituen ziozko zigorrak;

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 196., 197. eta 198. artikuluetan aipatutako arau-hausteen ziozko zehapenak, betiere Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau horren 191. artikuluaren 1. zenbakiaren b) eta c) letretako graduazio-irizpideren bat aplikatu badaiteke.

c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 46.2.b) artikuluan aipatutako zehapenak, betiere Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 191. artikuluaren 1. zenbakiaren b) eta c) letretako graduazio-irizpideren bat aplikatu badaiteke. Ildo horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 191. artikuluko aipamenak transferentzia-prezioen dokumentazioari dagozkiola ulertu behar da.

c) letran ezarritakoa gorabehera, ez dira zehapentzat hartuko, 8. eta 9. zenbakietan jasotakoaren ondorioetarako, osatu gabeko dokumentazioa aurkeztearen ziozko arau-hausteak, horrek merkatuko balioaren zenbatespena edo zehaztapena larriki eragozten ez badu, behintzat.

11. Xedapen honetan aipatutako prozedurak izapidetzeko, haien araudi espezifikoa beteko da, eta, haren ordez, tributu-araudia, aplikatu badaiteke.

12. Adiskidetasunezko prozedura baten esparruan eratutako kontsulta-batzordeko kideak edo ordezko ebazte-batzordekoak behartuta daude halako izaera duten aldetik ezagutzen dituzten tributu-datuen erabateko isiltasuna gordetzera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita. Betebehar hori urratzeak berekin ekar ditzake Espainiako araudiaren arabera erator daitezkeen legezko erantzukizunak.

    Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gainera, ukitutako beste estatu batzuen jurisdizkioaren eremu propioko barne-araudia ere aplikatu ahal izango da.

**Bosgarrena. Salbuespen partziala ondasun higiezin jakin batzuen eskualdaketaren ondoriozko ondare-irabazietan.**

Espainian establezimendu iraunkorrik izan gabe ondare-irabaziak lortzen badira Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden hiri-ondasun higiezinak besterentzetik, irabazion %50 salbuetsita egongo da, baldin eta ondasunok 2012ko maiatzaren 12a eta 2012ko abenduaren 31 bitartean eskuratutakoak badira.

Kasu bitan, baina, ez da aplikatuko aurreko lerroaldean ezarritakoa: batetik, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldeko baldintzak betetzen direnean (lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu); bestetik, entitateen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren testu bategineko hamaseigarren xedapen gehigarriaren azken lerroaldeko baldintzak betetzen direnean (testu hori 2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen).

**Seigarrena. Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga berezia.**

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hamazortzigarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiko a) letran zehaztutako sariei, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek lortutakoak badira, karga berezi bat ezarriko zaie zerga honetan, arauan xedatzen den moduan eta ondoren ezartzen diren espezialitateekin, baldin eta Bizkaian badago saria irabazi duen loteriako dezimo, zatiki edo kupoia edo apustua erosi zen salmenta-puntua.

2. Xedapen gehigarri honetan jasotako sariei atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie, foru arau honen 31. artikuluan ezarritako moduan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuko ditu baldin eta Bizkaian badago saria irabazi duen loteriako dezimo, zatiki edo kupoia edo apustua erosi zen salmenta-puntua.

   Halaber, atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da, baldin eta saria salbuetsita badago zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batean xedatutakoa dela bide.

   Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea %20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria, berriz, karga bereziaren zerga-oinarriaren zenbatekoaren araberakoa izango da.

3. Xedapen gehigarri honetan jasotako sariak lortu dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko karga berezi hau dela-eta.

   Hala ere, autolikidazioa aurkeztu beharko da, baldin eta lortutako saria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 2. zenbakian ezarritako zenbateko salbuetsitik gorakoa bada edo atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez bada lehen adierazitako 2. zenbakian xedatutakoarekin bat. Halakoetan, zehaztu beharko da zein den kasuan kasuko zerga-zorraren zenbatekoa, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko duen lekuan, moduan eta epeetan ordainduko da zor hori.

4. Karga berezi hau dela-eta Zerga Administrazioan egindako sarreren edo jasandako konturako atxikipenen zenbatekoak handiagoak badira zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten aplikazioaren ondoriozko kopuruak baino, hitzarmen hori aplikatzea eskatu ahal izango da, bai eta, ondorioz, dagokion itzulketa egitea ere, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

   Zerga Administrazioak itzulketaren eskaeran ageri diren datuak eman ahal izango dizkio zergadunaren egoitza dagoen estatuari, elkarren laguntzari buruzko araudian ezarritako moduan eta mugekin.

5. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren esparruan, establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek xedapen gehigarri honetan zehazten diren sariak lortzen badituzte, arestian aipatutako karga berezia besterik ezingo zaie ezarri sarioi.

**Zazpigarrena. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.**

1. Europar Batasuneko estatu kide bateko egoiliarrek Bizkaian izan duten ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare-irabaziak zergapetu gabe geratuko dira, baldin eta eskualdaketa horretan lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen bada. Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

2. Aurreko zenbakian adierazitakoa aplikatzeko kontuan hartuko da 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 38. artikuluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoa; lege horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen du eta Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeen alderdi batzuk aldatzen ditu.

3. Orobat aplikatu behar dira atxikipena egiteko betebeharra, 25. artikuluko 2. zenbakian ezartzen dena, zein autolikidazioa aurkezteko eta zerga-zorra ordaintzeko betebeharra, 28. artikuluko 1. zenbakian ezartzen dena. Aurrekoa gorabehera, berrinbertsioa autolikidazio hori aurkeztu behar den eguna baino lehen egin bada, berrinbertsioa —osoa edo partziala— kontuan hartu ahal izango da dagokion zerga-zorra zehazteko.

4. Xedapen honetan ezartzen dena berdin aplikatuko zaie gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea duen Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliarrei (Bizkaiko

Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren estatu horiek).

5. Legozkiokeen itzulketak eskatzeko baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

### Zortzigarrena. Zergei buruzko informazio- trukea.

Foru arau honetan «Espainiarekin nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausula duena, edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat sinatu duten Europako Esparru Ekonomikoko estatu»ei buruz egiten diren aipamenak «Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera gure lurraldearekin zergei buruzko informazio-trukea duten Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide»ei buruz egindakotzat joko dira.

### Bederatzigarrena. 2015. urtean aplikatzeko karga-tasak.

2015. urtean, uztailaren 12a baino lehen sortutako zergen kasuan, karga-tasa ez da izango foru-arau honetako 25. artikuluko 1. zenbakiko a) eta f) letretan ezartzen dena, alegia, %19a, %20a baizik.Tasa hori %19,5 izango da, aldiz, zerga egun horretatik aurrera sortzen bada.

### Hamargarrena. Zehapen-araubidea

Errentak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen dituzten zergadunei Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

### Lehenengoa

Pertsona fisikoak diren establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei 2004ko martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege-dekretuak xedapen iragankor bakarrean jasotakoa aplikatuko zaie (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren testu bateginari buruzkoa da legegintzako errege-dekretu hori).

### Bigarrena.

Foru Arau honen 19. artikuluaren 4. zenbakiaren a) letran aipatzen diren kenkariez gain, errentak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen dituzten zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hogeita bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusitako kenkaria aplikatu ahal izanen dute, bai eta foru arau horren hogeita seigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako konpentsazioa ere.

### Hirugarrena. 14.1.g) artikuluko salbuespenaren aldi baterako araubidea

14. artikuluaren 1. apartatuaren g) letran aipatzen den salbuespena 2021., 2022., 2023., 2024 eta 2025. urteetan aplikatuko zaie 2021eko urtarrilaren 1aren aurretik eskuratutako 20 milioi eurotik gorako partaidetzei, eta ez da beharrezkoa izango partaidetza gutxienez kapitalaren ehuneko 5ekoa izatea —zuzenean edo zeharka—, betiere 14.1.g) artikuluan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

### Bakarra.

1. Foru arau hau indarrean jartzean indargabeturik geratuko dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen

guztiak, eta indargabetu egingo da, bereziki, 1999ko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

2. Foru arau honetan bildutako ahalmenak direla bide emandako arauak indarrean jarri arte, indarrean jarraituko dute Ez-egoiliarren Errentaren Gaineko Zergari buruzko 1999ko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Araua garatzeko erregelamenduzko xedapenek, foru arau honetan xedatutakoaren aurkakoak ez diren heinean.

3. Xedapen honetan bildutako indargabetzeak gorabehera, Foru Ogasunak ez ditu galduko xedapen horiek indarrean zeuden bitartean sortutako betebeharrekiko dituen eskubideak.

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru arau hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duten zergadunei dagokienez, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie foru arau hau.

### Bigarrena. Erregelamenduak emateko gaitasuna.

Gaitasuna ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru arau hau garatzeko eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Bilbon, 2013ko abenduaren 5ean.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ.

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE.